



## Ospitale publikoaren aldeko mugimendua gailentzen ari da Tolosaldean



- **Jesús Uzkudun** «Sindikatuaren arteko fronteak izatea da gure akatsik handiena»
- **Frantziako Legebiltzarra** PSk gehiengo osoa lortu du Asanblea Nazionalean
- **CAN** Gestio penagarriak ez du zigorrik • **Larrun** Psikologiaren indarra kirolean
- **Net Hurbil** Krisiak bultzatuta, baserrira itzuli da Greziako kaletar ugari
- **Ana Diez**, zinemagilea «Kontatzen duzun historian inplikaturik egon bazara memoria bera zauri bilaka daiteke»



**Aste  
honetan...**



***Beranduegi.tv***



### ► **Beranduegi datorren albistegia**

Gorka Bereziartua eta Unai Brea kazetariak, astero bezala, ironiaz betetako begiratu zorrotza egin diote azken egunetako aktualitateari: Araba Euskaraz, Euskal Herriko kirol selekzioen ereserkia, Ipar Euskal Herriko hauteskundeak...



### ► **Lisabö**

Lau urteko isiltasunaren ostean, Animalia Lotsatuen Putzua diskoarekin arrakastatsu bueltatu dira, kritikak goretsiak, Primavera Sounderako hautatuak, eta beti bezain bortitz.



### ► **Laburrean: Stephen Moran 'Smiley'**

Dublinen jaio zen 'Smiley' eta duela 22 urte Euskal Herrira etorri zen, bihotzak ekarrita. Euskara ikasi eta hemen laketu zen. Musikaria da, gitarra jotzen du Hoey & The Mussels taldean. Euskalerrria Irratiko kolaboratzailea da, country eta folk musikaz hala nola musikariek hitz egiten mikrofonoaren aurrean.

### **Lehiaketa**

**Bidaniako (Gipuzkoa) Iriarte Jauregian bi lagunentzako asteburupasa.** Facebooken Beranduegi atsegin duzuenen artean zozkatuko dugu. Sartu gure orrian (<http://www.facebook.com/beranduegi>) eta hartu parte!



[www.beranduegi.tv](http://www.beranduegi.tv)

[www.beranduegi.tv](http://www.beranduegi.tv)



Azaleko argazkia:  
ANDONI CANELLADA  
/ ARGAZKI PRESS  
Azala: GARBINE  
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irueta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS-837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



## Deabruaren abokatua

- **Ane Gabarain:** «Errekonozimendua eskertzen da, baina bizi liteke hori gabe ere». SUSTRAI COLINA / 4

## Asteko gaia

- **Osasuna Tolosaldean.** Asuncion: publikatu ala 4 milioi euroko zorra ordaindu. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 5

## Pertsonaia

- **Jesus Uzkudun:** «Langileak sindikatua ez badauka bizkartzain, jai dauka». MIEL A. ELUSTONDO / 10

## Gaiak

- **Bertako ondarea ezagutzen.** Herria bera ikasgai. ALEJANDRA GOIKOETXEA / 16

## Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 19
- **Homofobia.** IMANOL ALVAREZ / 20
- **Txandan** Arrasateko Azoka. ANDONI MUJICA / 20
- **Shock Doktrina.** JOSEBE ITURRIOZ / 21
- **Hiruko txikian** Hauxe da. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Marianok egin eban. XABI PAYA / 22

## Erdiko kaiera

- **Ana Diez:** «Bizitza gatazka da, ez zaizkit komediak ateratzen». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 23
- **Literatura.** 'Bai mundu berria'. Asmatu zuen Huxleyk? UNAI BREA / 28
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

## Termometroa

- **CAN.** Nola hil kutxa bat kartzelan amaitu gabe. URKO APAOLAZA / 39
- **Oroimen historikoa.** Gudari ezezagunaren izena. AITOR AZURKI / 42
- **Frantziako Legebiltzarrerako bozak.** PSk gehiengo absolutua lortu du. MIKEL ASURMENDI / 43
- **Kantu-jirak.** Gasteiztik Baionara, kaleak kantuz eta euskaraz. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagaratik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Baserriaz akordatu diren greziarren pozak eta zalantzak. PELLO ZUBIRIA / 48

## Azkena

- Urrutiko sagarrak hamalau. IÑAKI MURUA / 50

# *“Errekonozimendua eskertzen da, baina bizi liteke hori gabe ere”*

**Ane Gabarain**

Bi eta Bat itzuli arren,  
Ane ez da sekula desagertu.

**SUSTRAI COLINA**

Argazkia: ETB



## **Rock taldeen *reviva*-en ostean, ETBko telesailenak!**

Dinosauro topaketa dirudi gureak. Bigarren zatiak ez direla sekula onak izaten dio esae-rak. Ea gu esaera baieztatzen dugun salbues-pena garen.

## **“Ez dira betiko garai onenak...”, kantatzen zuen Hertzaianak-ek.**

Orduan, ordu erdiko atala astebetean graba-tzen genuen, lana ahal bezain ondo egitea zen kontua. Orain, audientziaren ezpata gainetik kendu ezinik gabiltza, eta hirugarren atalera-ko ez badu funtzionatzen, “aio pelai!”.

## **Eskerrak ETBko zuzendaritzak ez dion lege hori bere buruari aplikatzen!**

ETBk bere funtsa birpentsatu eta berriz flo-tatzen ikasi behar du, benetako apustuak egin. Noiz ulertuko dute produktu on batek audientzia eskasa izan dezakeela eta produktu txar batek audientzia handia?

## **Zer nahi duzu, denak ez dira zu bezain erro-mantikoak.**

Euskal Herrian aktorea izateko idealismoa, bokazioa eta ilusioa behar dituzu. Urteak pasa eta zenbat egin dugu aurrera telebistan, antzerkian, eta kulturen orokorrean? Honek oasitxoak dauzkan basamortua izaten segi-tzen du.

## **Ez al ginen herri kulturazalea?**

Donostian ekitaldi handiez gain ez omen delako ezer programatzen kexatzen gara,

baina zerbait antolatzen denean non gaude? Gizarteak zein gizakiak kultura beharra dau-kate, baina premia hori hezkuntza eta politi-katik elikatu behar da, bestela...

## **Zuek ere elikatu beharko duzue, ezta? Ez omen zarete jendeak uste bezain aberatsak...**

Telebistan dena hainbeste aldir errepikatzen dutenez, egun guztia bertan sartuta eta kobratzen ari garela uste du jendeak. Baina ez, telebistak ez daukala dirurik dio, ez da antzerkirik programatzen, bikoizketa hondo-ratu da...

## **Hasi beste lan batean!**

Hori egiteko zorian egon naizenero jo du telefonoak. Oinarritzko aktoretzat daukat nire burua, eta gustuko dudanetik bizitzeko beste daukadan artean konforme. Errekonozimen-dua eskertzen da, baina bizi liteke hori gabe ere.

## **Eta bizi liteke norbere buruaren komertzial lanik egin gabe?**

Oso garrantzitsua izan arren, ez dakit nire burua saltzen. Gaur egun, ez da aski aktore ona izatea, manager eta casting zuzendariek mozten dute pastela.

## **Zu lasai, lehen heriotzak berdintzen bagintuen, laster erretiroak berdinduko gaitu!**

Gure txanda iristerako auskalo erretirorik egongo den! Dena den, aktoreontzat erretiroa uto-pia da. ■





## Osasuna Tolosaldean

# Asuncion: publikatu ala 4 milioi euroko zorra ordaindu

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde (TOPA) Koordinakundeak urtebete eraginkorra darama Osasun Sailaren jokaldia geldiaraziz: eskualde-ospitale baten beharra egonik, Asuncion Klinika pribatuari zerbitzuak azpikontratatu dizkio Jaurlaritzak, espezialitate anbulatorio publikoa odolustuz (ikus ARGIA, 2276. zenbakia, 2011-05-15). TOPAk urtebeteren buruan Klinikaren eraikuntza lanak gelditzea lortu du eta 31 udalek mozioa onartzea, zera eskatuz: Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin 4 milioi euroko zorra duen klinika publikatzeko.

Testua eta argazkiak:  
**ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA**

ASTEARTEA, 20:00. Astero bezala TOPA Koordinakundeko kideak bilduta daude Tolosako Kultur Etxean. 20 bat kide biltzen dira bilera arrunta denean, eta aretoa gainezka izaten da batzar berezietan. Duela urtebete ekin zioten bideari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren asmoak Tolosako anbulatorio publikoa hustutzea eta Asuncion Klinika pribatua indartzea zirela salatuz. Urtebeteko lan erritmo intentsoari eta ikerketa lanari esker, TOPAk lortu du Tolosaldean gaia bero-bero jartzea, herritarren eta udalen



babesa eta 2011n Osasun Sailak Asuncione-kin sinatutako kontzertua kolokan jartzen duten hainbat ekimen ere: Asuncion handitzeko eraikuntza lanak geratzea, eta titulaziorik gabeko mediku espezialistek euren kontsultak etetea, besteak beste. Tolosaldea dela ospitalerik ez duen eskualde bakarra salatzen dute oraindik, eta ospitale baten zerbitzuak eskaintzeko osasunaren gestioa pribatizatzea ez dela errentagarri, “edozein enpresaren moduan, klinikaren helburua osasunarekin dirua irabaztea baita, diru publikotik bere onurarako zati bat hartuz”; gestioa publikoa izatea eskatzen dute, “diru publikoaren %100a osasunera joan dadin, zati bat enpresarien patrikara joan beharrean”.

Ikerketek agerian jarri dute Asuncione-kin diru kontuetan eta pertsonalean dituen irregularitasunak eta hauen berri eman digute TOPAko kide diren Mari Mujika (LAB), Kristina Pelaez, Jesus Mari Aranzegi eta Jabier Aranak (azken hau medikua).

1996an Asuncion Klinikaren aurreko nagusiak (Benito Izagirre) porrot egin zuenean, Gómez Montoyak bere kargu hartu zuen Klinika, Inviza S.A sortuz. Esan liteke erosi zuena 4.056.794 euroko zorra izan zela, diotenez euro bakarria ordaindu baitzuen klinikaren truke. Egutegi bat zuen enpresak, klinikaren onura ekonomikoaren arabera Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zuen zorra itzultzeko (1996-97an irabazien %20; 1998-99an irabazien %40; 2000n irabazien %50 eta ordutik hona irabazien %75). 2010ean zorra 4.046.403 eurokoa zen; “18 urte pasa dira eta Invizak urtero irabaziak izan arren, zorrak ia lehengo bera izaten jarraitzen du. Martxa honetan 200 urtean itzuliko du zorra” salatu du Mari Mujikak.

Kide diren enpresen artean diru irabaziak batera eta bestera desbideratuz lortzen du Invizak zorrari itzuri egitea.

### Eraikuntza lanak geldituta

Zorra dela-eta geldituta daude Asuncion Klinika handitzeko egin nahi zituzten eraikuntza lanak. Izan ere, zorraren fidantza gisa lur eremu bat jarri zuen Invizak, eta klinika handitzeko lanen truke Tolosako Udalari lur hori bera eman nahi zitzaion. Aldiz, horretarako lurrak “kargarik gabe” egon behar du. “Larriena da Jokin Bildarratzek irregularitasun hau zuen proiektuari baimena eman ziola” dio Mujikak. Bere hitzetan, Tolosako lehengo alkateak iazko hauteskundeak galdu ondoren eman zion baimena klinikari handitzeko lanak hasteko, “Udala aldatu baino bi egun lehenago. Ez hori bakarrik, Tolosako Udalak eraikuntza zerga barkatu zion,

## Titulurik gabeko espezialistak

TOPAK ohartarazi du klinika horretan badirela medikuak urteak eta urteak eman dituztenak espezialista moduan lanean, dagokien titulaziorik eduki gabe. Alegia, Medikuen Elkargoan espezialista homologatu gisa agertzen ez direnak. Sare publikoko Eskualde Ospitaleko mediku espezialistek derri gorrez beren titulua homologatua izan behar dute, azterketa jakin batzuk pasa eta mediku egoiliar moduan denbora tarte bat egin. TOPAK jakinarazi du, asanbladan gai hau planteatu zuenean, Asuncion Klinikak web orria zuzendu zuela, eta espezialitaterik gabeko mediku hauek orain “mediku orokor” moduan ageri direla. Jada ez dutela kontsultetan jarduten, bestelako lanetan baizik. “Asuncionena larria da, baina Osakidetza are larriagoa. Kontzertu akordioan agertzen da kontrola egingo zaiola klinikari kalitatea bermatzeko. Orain arteko hutsuneak Koordinakundeak azaleratu ditu, Osakidetza bestaldera begiratu du. Non dago inspekzio medikoa?” gehitu du Jabier Arana medikuak.

Etkez etxeko asistentzia eskaintzen ari diren medikuak ere ez direla espezialistak ohartarazi du Aranak. “Bi mediku horietatik bat Zumarragako Ospitaleko zuzendaria eta Donostiako Ospitaleko zuzendaria izan zen. Lehendakari aldaketarekin kargu politikoak utzi zituenean hasi zen mediku lanean. Medikua orokor titulua dauka, eta etkez etxe aritzeko familia mediku edo barne-medikuntza titulua behar da”.

231.651 euro alegia!”. Hiru herritarrek helegitea jarri zuten eta 2012ko urtarrilean Tolosako Udalak baimena “zuzenbide osoz deuseza” dela ebatzi zuen.

Handitzeko lanak geratuta daude beraz, eta martxan jartzekotan lehenik 4 milioi euroko zorra itzuli beharko du Invizak, fidantza moduan jarritako lurra kargarik gabe utzi eta Udalaren baimena lortzeko –horretarako proiektua berriro aurkeztu beharko du eta pribatizazioaren aurka dagoen Udalaren baimena lortu–.

### Kontzertua betetzeko arazoak

2011ko azaroaren 15ean Osasun Sailak eta Asuncione-kin bost urterako kontzertua sinatu zuten, Tolosaldeako espezialitate guztiak klinikari azpikontratatzuz. Akordio horren bidez, Jaurilaritzak urtean 20 milioi euro

## Pertsonal kopuru eskasa

Taula honetan datu alderaketa hau egiten da: "Batez besteko eskualde-ospitalea" zutabeko datuak, Gipuzkoako hiru eskualde-ospitaletako (Mendaro, Zumarraga eta Bidasoa) datuen batez bestekoarekin osatu da, eskualde-ospitaleek izaten duten espezialista kopurua azaltzeko. Tolosako atalean, "Asuncion Klinika gaur" zutabean agertzen da egun dituen kopuruak, eta "Asuncion publiko eginda" zutabean berriz, etorkizunean eduki behar lituzkeen kopuruak: Tolosaldeko biztanle-

riari gainerako eskualde-ospitaleen batez bestekoa aplikatuta (biztanleko espezialista kopurua).

\* **Oharra:** Espezialista hauekin osatutako taula lagin bat da. Ospitaleetan sail gehiago daude (zeladore, erizain, idazkari...). TOPAko kideek diote lagin honetan ematen diren proportzioak ospitaleetako lantalde osora eramanda antzerako egoera aurkituko genukeela, alegia, batez bestekotik behera dagoela Asuncioneko langile kopurua.

### Batez besteko eskualdea

82.267 biztanle

Batez besteko eskualde-ospitalea

#### I. Kirurgia

Kirurgia orokorra 7.8

Traumatologia 8.0

**Kirurgia guztira 15.2**

#### II. Barne medikuntza

Barne medikuntza orokorra 6.7

Digestiboa 2.3

Kardiologia 3.0

Neumologia 2.0

Neurologia 2.0

Hematologia 2.0

Reumatologia 0.7

Endokrinologia 1.3

Etxez etxeko zerbitzua 3.3

**Barne medikuntza guztira 23.3**

**GUZTIRA 39.1**

### Tolosa

65.000 biztanle

Asuncion Klinika gaur

Asuncion publiko eginda

5.5

6.2

4.1

6.3

**9.6**

**12.5**

4.0

5.3

0

1.8

1.8

2.4

1.0

1.6

1.0

1.6

0.4

1.6

0.2

0.5

0.1

1.0

2.0

2.6

**10.5**

**18.4**


**20.1**

**30.9**

Ondorioa: Asuncion Klinikak egun duen pertsonala baino **%53 gehiago** eduki behar luke, gestio publikoko eskualde-ospitaleen kalitate bereko zerbitzua emateko.

## IBERNALO landetxea - jatetxea

Gozatu naturaz: hipika, arrantza, golfa, eskalada, amildegiak...



01110 Kanpezu (Araba) - ☎ 945 102 271 / 647 911 484 - [www.iberنالorural.com](http://www.iberنالorural.com)



## TOPAren hurrengo urratsa: publikazioa arautzeko mahaia sortzea

Tolosaldeako udal denek (29), Andoainek eta Legorretak mozio bat onartu dute, non bost puntu hauek eskatzen diren:

1.-Asuncion Klinikaren publikazioa, eskualdeak kudeaketa erabat publiko Eskualdeko Ospitale Publikoa izan dezan.

2.-Osasun zerbitzu honek beste eskualdeetan eskaintzen den mailako kalitatea bermatzea.

3.-Mahaia osatzea afera honek eragiten dien alde guztien artean (Osasun Saila, langileen ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundia, udalak, Koordinakundeko ordezkariak), klinikaren publikazioa definitzeko (epeak, plana, langileen erregulazioa...).

4.-Akordioa lortu bitartean, Jaureritzak sinatutako konbenioaren ondorioz hartzen ari diren neurriak bertan behera uztea, Tolosako espezialitateen anbulatorioa hustearena, adibidez.

5.-Invizak eginiko balizko iruzurrak eta legez-kanpoko ekintzak ikertzea.

31 udaletan mozio hau onartu berri denez, publikazioa arautzeko mahaia osatzen hasteko urratsak emango dira irailan.

✓ Ekainaren 21ean prentsaurrekoa emango du TOPAk 19:00etan Tolosako Kultur Etxean.

✓ Ekainaren 30ean, larunbata, 12:00etan manifestazioa egingo da Triangulo plazatik hasita, publikazioa eskatuz.

✓ Otsailean urtebete egin zuten Koordinakundeak



TOPAko astearte bateko bilera. Lehen lerroan, ezkerrean Jabier Arana eta eskuinean Mari Mujika. Eskuinera bigarren ageri da Jesus Mari Aranzegi eta ezkerrean hirugarren Kristina Pelaez.

18.000 sinaduratik gora bildu ditu Tolosaldean. "Tolosako udal hauteskundeetan bozka eman zutenak baino gehiago dira. Horrek erakusten du alderdi guztietako jendeak bat egiten duela osasun publikoa mantentzearen alde" azaldu du Kristina Pelaez Koordinakundeko kideak. Sinadura hauek Osakidetzara bidali dituzte.

✓ Asuncion Klinikak emandako zerbitzu eskasa salatzeko kexak biltzen ari dira; 600 kexa inguru daude aurkeztuta Osakidetzako Lurralde Zuzendaritzan, Begiristain jaunari zuzenduta. "Behartuta daude kexa hauei erantzuna ematera. Normalean gauza oso orokorrak erantzuten dituzte, kexarekin zerikusirik ez dutenak" gehitu du Pelaezek.

ematen dizkio eta eskualde-ospitale moduan lan egiten hasi da; alegia, Tolosaldeako herriarrek ez dute aukerarik Donostiako Ospitalera joateko, ez bigarren iritzi baten bila, ezta ingresatzera ere, klinikan espezialitate hori baldin badago. "Kontzertuan esaten da egokitzapen lanak beharrezkoak direla. Klinika handitzeko lan horiek gabe posible da kontzertuan adostutako zerbitzuak ematea? Alegia, klinikan hartzen diren egungo kontsultez gain, Tolosako anbulatoriotik eratorriko diren beste 60.000 kontsulta eta Donostia Ospitaletik etorriko direnak artatzea? Gure ustez ez. Ez dira kontratua betetzen ari" salatu du Aranak. Kontsulta medikoak Asuncionek hainbat lekutan dituen eraikuntzetan sakabanatzea ez dela erosoa gaineratu du (klinikan bertan, Belateko kon-

sultorioan, Andoainen eta Pilar klinikan): "Inoiz ez bezala, itxaron zerrenda luzeak sortzen ari dira espezialitate batzuetan. Kardiologian, esaterako, lehen zita lau hilabetera ematen dute, aldiz, Andoainen 15 egunera. Orain Tolosakoak gara Andoaina mugitu behar dugunak medikutara".

Lekuak bezainbeste gabezia dituela pertsonalak kritikatu du Aranak: "Gipuzkoako gainerako eskualde-ospitaleekin konparatzen badugu (ikus koadroa) aldea nabarmena da. Beste ospitaleetan lanaldi osoak dira mediku guztiak eta gehiago dira. Asuncionen batzuk dira osoak eta beste dezente partzialekoak, eta denera espezialista gutxiago dira gainerako eskualde-ospitaleetan baino. Halako desberdintasunekin ezin da kalitate bera eman. Digestiboko espezialistarenak



marka denak hautsi ditu: anbulatorio publikokoa jubilatzen zen eta ez zuten besterik ekarri. Anbulatorioko zirujauarengana bidaltzen zintuzten. Zirujauak ebakuntzak egiten daki, ez gaixotasunak tratatzen! Gainerako eskualde-ospitaleetan digestiboko hiru espezialista daude, eta Asuncionen bat ere ez”. Pozik dago, TOPAren aldarrikapenei esker, orain Tolosako anbulatorioan digestiboko espezialista bat jarri dutelako: “Astean bi egunez etortzen da Donostiako Ospitaleko espezialista bat. TOPAren lanek emaitza ematen dutela ikusten da”.

Koordinakundeak jakinarazi duenez, Asuncion Klinikako web orrian 110 mediku dituela agertzen den arren, Invizako langile taldean 50 mediku besterik ez dira agertzen. “Langileen %40 dira plantilakoak, gainerakoak autonomoak, subkontratuak, orduka lan egiten dutenak... Ez dute klinikarako erabateko dedikaziorik. Ospitale batean mediku talde bat daukazu, aldiz, Asuncioneko kardiologoek, esaterako, astean bi goiz egiten dituzte Belaten eta beste bi goiz Andoainen. Nola nahi dugu gainerako ospitaleen kalitate bera ematea?” kezka azaldu du Jabierrek. Asuncionek eskainitako zerbitzu eskasa agertuz keak bideratzen ari da Koordinakundea, eta motiboetako bat horixe da, “kardiologorik ez zegoelako artatu gabe geratu direnena”.

### Sistema informatikoa ez da Osakidetzarenarekin bateragarria

Asuncion Klinikak sistema informatiko bat garatu du bere kide den Historias y gestiones Hospitalaria enpresaren bidez. Osasun Sailarekin sinatutako kontzertuak dio Asuncionek eta Osakidetzak informatikoki lotuta egon behar dutela. Aldiz, Asuncionen sistema ez da Osakidetzakoarekin bateragarria. Honek gaixoengan ondorioak dituela azaldu du Jesus Mari Aranzegi Koordinakundeko kideak: “Gaur egun plaka bat ateratzen badizute



## Tolosako anbulatorio publikoa hiltzen utzi du Osasun Sailak

Klinika pribatua indartzearekin batera espezialitate anbulatorio publikoa desegin du pixkanaka Osasun Sailak. Jada Kardiologia, ORL, Traumatologia eta Digestiboko espezialitateak desagertu dira.

Osakidetzan, ez dute inprimatzen, aurrezteko neurri gisa. Tolosako anbulatorioan plaka atera eta joaten bazara Asuncioneko espezialistarengana, hark ezin du bere ordenagailutik plaka ikusi eta beraz, berriz bueltan bidaltzen zaitu anbulatoria plaka inprimatzeko eskatzera. Edo Asuncionen bigarrenaz ateratzen dizute plaka, erradiazio bikoitza jasoz”.

Leku eta pertsonal eskasia eta sistema informatiko bateragaitza, horiek dira gaur gaurkoz Asuncionek eskualde-ospitale funtzioa bete ezin duela azaltzeko hiru ardatzak. ■



### Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua  
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · [www.sigacus.com](http://www.sigacus.com)

## Kontseju jatetxea



- Eguneko menuak
- Ospakizunak
- Asteburuko menu bereziak
- Plater konbinatuak

© 943 683 327 / 656 710 073

Hirigunea, 1 · Elduain (Gipuzkoa)

# Jesus Uzkudun

## «Langileak sindikatua ez badauka bizkartzain, jai dauka»

Disidentzia ez da gauza eroso. Hor da Jesus Uzkudun, CCOOko zuzendaritzako kidea, abertzale eta ez abertzaleen artean zangalatraba, gaztetatik langilearen alde lanean etengabe.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

### Jesus Uzkudun Illarramendi...

Manterola Garmendia! Donostiako Igaran jaioa, Pellotegi baserrian. Aiatik etorriak nituen gurasoak; Laurgaingo Ibarrolakoa aita, Zatarain Berrikoa ama. Etxean hazi nintzen 7 urte arte. Ondoren, morroi izan nintzen Matia asiloa zegoen Ixa baserrian 14 urte arte, familia Hernanira joan zen arte. Ibiltzeko gauza izan nintzenean hasi nintzen lanean, baserrian ohi denez. Hernanira joan ginen sasoiari, udan, morroi izan nintzen beste baserri batean. Ondoko udetan, fabrikari egin nuen lan, aitaren ondoan Olan zerrategian. Eskola profesionala bukatu [Lanbide Heziketa ikasketak], eta Urnietako Urma tailerrean lanean nintzen, 17 urte nituela.

### Orbegozoko garaia?

Geroago. Aurretik, Gureola Scott-en aritu nintzen, hangoak ditut lehenengo esperientziak. Burgosko prozesua-eta. Geuk, gazteok, geratu genuen fabrika. Soldadutza egin orduko, Orbegozora joan ginen, Gureolan ez zegoen-eta erakundean sartzeko jendea inguratzetik. Eta Orbegozora. 22 urte izango nituen.

### “Erakundean sartu”, esan duzu.

Aurrena kristau mugimenduan, auzoan, edo lan munduan ibili nintzen. Hortik, segituan sartu ginen erakundean, ETAko langile frontearen, ETA VI segituan. Esan zidaten: “Egin ezak, inork ez dik erakutsiko zer egin behar den!”. Eta hasi ginen, eta orain arte, beti ikasten. Leihoak irekita edukitzea bezalakorik ez

dago horretarako. Batari eta besteari kasu egin, bideak saiatu... “Bide honetatik ez zegok!”, eta beste batetik saiatu.

### Burgos garaia aipatu duzu, prozesua.

Propaganda banatzen genuen Burgoskoa baino lehen ere, barra-barra, nahiko agerian. Jendeak bazekien. Burgosko epaiketa garaian, egun haietan, fabrikako gerenteak esan ere egin zidan, ETAko propaganda banatzen nuela. “Nik ez!”. Bigarren solairuan ari nintzen makina konpontzen, Sanitarias atalean.

## Nortasun agiria

Jesus Uzkudun (Donostia, 1949) Euskadiko CCOO sindikatuko kidea 1969ko klandestinitetik hona. 1982an ardura karguak hasi zen hartzen sindikatuari, eta 1996tik Euskadiko exekutibakoa da. Laneko Osasuna eta Ingurumena izan du ardura eta hortxe egin du borrokarik handiena, amianto, minbizia, silikosia, asma, gorroria eta bestelako gaixotasunak azalera ekarri. Europako Agentziaren saria jaso zuen 2005ean, laneko zarataren kontrako kanpainaren barruan, gorroria duten langileen alde egindako lanagatik: 6.000 kasu baino gehiago aztertu zituen. Askotan ageri izan da Egunkaria, 18/98, Udalbiltza edo Adierazi EH kasuetan inputatuen aldeko ekitaldietan. CCOO sindikatuko buruzagietan beterranoetakoa, gutxi egin liezaioke kontra Jesus Uzkuduni.









Emakumeak ziren han denak. “Bedeinkatua andre guztien artean” nintzen. Makina konpontzen ari nintzela, erreminta jaso, eta behe-  
ra. Atzetik, makina guztiak gelditu zituzten. Bi langilek, ez zutela nahi. Joan ginen denok korruan eta itzali genizkien. Berrehun langiletik gora ginen, eta ehundik gora, emakumeak! Handik egunetara, gurekin lan egiten zuen lagun bat atxilotu zuten. Beldurra pasatu genuen, baina aurrera.

### Beldurra bizi zenuten Francoren sasoian...

Beldurra pasatu ez zuela esaten duena, txoro galanta! Beldurra, eta eztarria lehor, behin baino gehiagotan. 1974an bertan, Puig Antich katalana hil ondoren, polizia atzetik nituela, alde egin behar izan nuen, andrearekin batera. Aberri Eguna eta geroko kontuak. Bi urte pasa nituen Gasteizen, klandestino. Han, borrokatzea posible zela ikasi nuen, eta erakutsi ere bai. Behin esan nion: “Bihar ez bazarete manifestazioan hasten, fuera erakundetik!”, eta irten ziren, eta jendea haien atzetik! Eta gustura! Hurrengo egunerako berriz geratu ziren. Hura ilusioa! Gure lana hobeto planifikatzen ikasi nuen han.

### 1976, martxoak 3.

Goizeko ordu batean, San Frantzisko elizako komunikatua ekarri zidaten. “Gauerdirako ekartzen ez badute, ohera!” esan zidaten. Ordu batean ekarri zuten, eta goizeko bostetarako industri poligono guztietan zegoen propaganda. Arturo del Valek, Iñaki Uribarrik zer edo zer idatzi dute, baina haren historia osoa idatzi gabe dago oraindik. Erabat erretiratzen naizenean, orduantxe. Kar, kar, kar.

### Langilea mugitzea erraz zen orduan?

Gaske jendea airean inguratzen genuen. Erraza ez zen, hala ere. Martxoaren 3koa gertatu eta astebetera, bilera bat, klandestino. Gaueko hamaiketan irten ginen bilertatik. Nirekin batera, andrea eta Arrasateko bat. Inguruan, polizia-autoa ikusi genuen. “Goazen Bar Txokora”, esan genion andreak eta biok Arrasatekoari. Sartu tabernara eta komunera gure laguna. Eta, orduantxe, polizia tabernara. Dokumentazio eske hasi ziren tabernan geundenoi. Nik tripak airean, propaganda paper pila neraman, eta barneko egiturarenak ere bai. Hura harrapatu izan balute, akabo! Hasi dira agiriak eskatzeko, lehenengo bati, gero besteari... Hirugarrena, nire emaztea, andre bakar tabernan. Dokumentazioa aztertu eta “Hernanikoa”. Andreak kristoren beldurra, ni korrika noiz hasiko ote nintzen. Eta orduan, polizia esan zion: “Senar-emazteak gara”. Eta polizia: “Senar-emazteak?”. Nire agi-

rietan, “Iñaki Fran...”, bizkaitarra. Faltsua papera, helbidea ere ezin genuen eman. Galdetu ere ez: “Utzi senar-emazteei joaten” esan zuen poliziak. Horrelaxe libratu ginen. Beste guztiak poliziak eramane zituen. Komunean sartu zena hantxe geratu zen, atea itxita. Leihotik irten zen. Istorioak! Kar, kar, kar.

### Zenbat istorio, ezta?

Denak kontatzen hasiko bagina, egunak argituko luke bitartean. Batzuk istorio politak. Lagunartea dut orduko oroitzapen ederrera. Bestela, beldurra, diru eskasia... Gasteizen, bi urtean sei etxebizitza ezagutu genituen. Sei etxebizitza! Gasteizkoak bertakoak baino hobeto ezagutzen nituen auzo guztiak.

### Sindikalistatzat zenuen zeure burua?

Langile iraultzailea nintzen.

### Eta gaur egun?

Baita ere.

### Zure titulua, berriz, “Jesus Uzkudun, sindikalista”.

Beti hortxe jardun naizelako. Gasteiztik Donostiara etortzeko garaia iritsi zenean, han bertan geratzea proposatu zidaten, Araban. Politikari karrera egingo nuen, seguru asko...

### Politikari karrera, ona litzateke?

Politika ez da txarra.

### Politikariez ari naiz...

Denetarik dago. Denetarik ezagutzen dut. Gainera, beti esan dut, sindikalismoa politikaz kutsatu behar dugula, eta alderantziz, politika sindikalismoz.

### Nola egin hori?

Gure ordezkariak langileekin harremanetan jarritz lortuko genuke, politikarien arteko eztabaidak langile artera eramanez.

## Euskadi Nafarroa

“Euskadiko eta Nafarroako sindikatua ginen, Estatuko CC00orekin konfederazioan, nafarrek apartatzea erabaki zuten arte. Jo nuen Nafarroara, batera segitzeko, baina ez nuen lagun askorik bilatu. Harrezkero, dagoen lekuan dago bakoitza”.

## Robot lana

“Lanak duintasuna ematen dio langileari, eta hura hil ere bai. Frankismoan hazi ginen, lan txarretan jarduteko kultura itsatsi zitzaigun, txanpon batzuen truke osasuna saldu genuen. Lanera joan beharra daukagu, baina lan egiteko era aldatu behar dugu. Ezin da langile bat ekologismoaren edo euskararen alde jardun, zortzi ordu baino gehiago robot lanean eman eta gero”.

Inon egiten da hori? Nork zuzenduko luke eztabaida?

Zenbait lekutan egiten da. Grezia bidea erakusten ari da. Edo Egipto. Edo Latinoamerika... Sindikatuko kideek esan izan didate, Suedian, edo Finlandian, ministroa langile batzarrean, argibideak ematen, eta egurrean! Hemen, berriz, lekutan gaude.

Sindikatuari lekua kendu dio gizarte mugimenduak?

Bi mundu dira, bata bestearen osagarri. Lehengo sindikatuak pentsatu izan zuen bera dena zela, baina zaila da sindikatuak maila guztietan erantzutea. Langileak sindikatuaren antolatzen dira, beren arazoak konpontzeko. Lan arazoak, batik bat. Sindikalistak ez du sindikalista bakarrik izan behar, beste txartel eta konpromiso asko eduki behar ditu. Gizarte mugimenduetakoak, eta beste.

Langilearen lan arazoak konpontzeko dago sindikatua, esan duzunez. Izan lan-hitzarmena, lan baldintzak, osasuna...

Herri honetan gehiegitan nahastu dira sindikatua eta partidu politikoa. Plano ezberdinetan ari dira, ordea. Sindikatuak langileen arazoak konpondu behar ditu. Politikariek lan erraza dute: honetaz eta hartaz eztabaidan jardun. Sindikatuak gero eta afiliatu gehiago behar ditu, bestela ez dute errespetatuko. Langileak ez badu bizkartzainik, sindikaturik, jai dauka.

### Gazteak sinesten du sindikatuari?

Bai eta ez. Balioak aldatzen ari dira, etorkizuna aldatzeko esperantza galdu egin da neurri handi batean. Sinesmen hori galdu da, berreskuratu egin behar da. Oraingo egoeran, beharrezkoa da balio horiek berreskuratzea, eta uste dut horixe landu behar dugula.

Zer da sindikalista izatea CC00n, langile batzordeetan?





Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.







**BIZKAIA**



Belarri onak edukitzea, sudur ona, pentsaera politiko ezberdina duenarekin elkarlanean jardutea, arazoa igarri eta erantzun egokia emateko. Gainera, odolberoa izan behar da, injustiziei aurre egiteko, eta nork bere indarrak ondo gestionatu behar ditu, ez gaztetan egiten genuena, eup!, eta aurrera.

### Zer da CCOOko sindikalista izatea Euskadin?

Konplikatuagoa! Batzuek mugari naizela esaten didate, “mugakide” esaten dut nik, batetik bestera nabilelako. Nire ustez, sindikatuen arteko fronteak izatea da gure akatsik handiena. Hondamendi hutsa. ETA VI.ekoa izan nintzen, troskista, gauza bat irakurrita batez ere. Internazionalismoa-eta, bai, baina, hori baino gehiago, langile fronte batua, III. Internazionaleko laugarren kongresua. “Hementxe zegok, hortik jo behar diagul” izan zen niretzat. Ezin da gure herri honetan erreformen aurka edo halako politika baten aurka jo, esanez “ez, ni zuekin ez noa”. Hori antzerki egitea da, arazoei erantzuteko borondaterik ez izatea. Azkeneko greban garbi ikusi zen hori. Denok batera egoteak –batuta edo elkartuta, batera behintzat–, ilusioa eta konfiantza ematen du. Hori ez badago, *kaputo!* Nahitaezkoa da zubi lana, elkarlana bultzatzeko. Elkarlanik ez bada, ez arazo soziala ez nazionala konpontzeko pausorik emango da. Arazo nazionala konpontzeko ere akordio zeharra behar da.

### Zer diote honetaz sindikatu abertzaleetako arduradunek?

Oraindik orain, eztabaida bat Hamaika telebistan: LAB, STEE-EILAS eta gu. ELAren beste eztabaida bat izatea eskatu zidaten. “Saria, lortzen baldin baduzu”, halaxe esan nien. Batek ez badu eztabaidatu nahi, zerbait du ezkutatzeko. Horrela da. ELAk ez du eztabaidatu nahi gurekin. Beste kasu bat, nire arloari dagokiona. Duela hamar, hamabost urte, Prebentzio Legea atera zenean, akordatzan naiz esan niola ESK-ko lagun bati: “Hi, istripua gertatu bezain agudo, erantzun baterakoia”, eta akordioa egin genuen. Joan ginen ELAkoengana, eta “ez! Guk ez dugu horretan parte hartuko. Nahi duena, datorrela gurekin”. Zer pentsatzen zuten, gu geldirik



## AZKEN HITZA

### Euskara

“Askorekin hitz egiten dut euskaraz CCOOn. Unai Sordo, gure idazkaria, euskaldun berria da, adibidez. Baditugu, bai, euskaldunak. Esate baterako, euskara plana abiarazi nuen CCOOn, gainerako sindikatuetan inork baino lehen. Ibarretxeren azken agintaldian, Euskararen Aholku Batzordeko kide izan nintzen”.

egongo ginela? Zer ekarri du horrek? Lotsagarrikeria: langile bat hil, eta protestan, bi pankarta! Maila horretan LABek, ELAk, edo jaungoiko bedekintuak, gu salduta gaudela esaten badu, gezurra esaten ari da, ez dute sinesgarritasunik. Hor dago frogia, gure eguneroko lana eta ekintza.

### Langilearen aldeko lan eta ekintza.

Hortxe gozatzen dut nik: minbizia, gorrieria, asma... Osasungintza izan da nire ekintza sindikala. 1982an Gipuzkoako Lan Osasuneko buru izendatu ninduen sindikatuak, eta harrezkerro, egin du euria. Sasoi hartan, Orbegozon, urtean hildako bat izaten genuen, gutxienez. Elbarrituak, makina bat. Iraultza egin genuen: Seguritate eta Higiene batzordea bost langilek osatzetik hogeita hamahiruk osatzera igaro ginen. Huraxe bai, iraultza! Lan istripuak gutxitzeko erabateko pausoa izan zen. Laneko gaixotasunari ez genion askorik begiratzen, poliki-poliki ikasi genuen horretan ere. Lan osasunak txoratuta nengoela esan izan

zidaten, baina uste dut beste kutsu bat eman diodala sindikalismoari. Amiantoa, silikosia, gorrieria... Gaixotasun horiek ez dira segituan agertzen. Gaur egun, Euskadi puntan dago Estatuan, minbizi eta silikosi kasuetan. Kasu ezagutuak, aitortuak. Zakur zaharra behar da horiei antzemateko, eta gaixotasunak errekonozitzeko pausoak emateko. Abokatuak? Epaitegirako dira onak, ez beste ezertarako! Gaixo dagoen langileak sindikatua behar du atzean. Mutuak, gizarte segurantzak... aurka egingo diote. Milaka eta milaka kasu aztertu izan ez banitu, ez ginateke oraingo egoeran egongo. Sindikatuen pankarta eta protestak beharrezkoak dira, baina langile bakoitzaren kasua gestionatzea da inportantea.

### Are gehiago krisi garaian.

Langileen indarrari eutsi, horixe da lehena. Eta murrizketei nola erantzun ondo pentsatu. Borroka egin behar da. Askok esaten dute: “Bada, beste greba bat”. Bai, eta hurrengoan hiru egun? Gauzak ondo neurtu behar dira, eta langileak badaki greba batek zenbat kostatzen duen poltsikoan. Txorakeria gutxi! ■



# POLTSIKOAN

Goiena.net prest sakeleko telefonoan!


- Albisteak
- Blogak
- Gaiak
- Gida komertziala
- Iritziak
- Irratia
- Parte hartzeko atala
- Telebista

## Deskargatu!

Beheko QR kodea irakurrita,  
aplikazioa jaitsi daiteke Google  
play edo App Store dendetan.



*m.goiena.net*




**PARTE HARTU** Parte hartu zorion agurrak, eskalak eta ezkon-zorionak bidaltzen.



**HERRIAK** Albisteak, herrika eta gaika antolatuta. Etxeko ordenagailuan bezala



**AGENDA** Edozein unetan dataren, herriaren edo ekintza motaren arabera bilaketa.



**GIDA KOMERTZIALA** Ukitu batekin nahi dugunari telefonoz deitzeko aukera.



• Bertako ondarea ezagutzen •

# Herria bera ikasgai

Erdi Aroan Erreterria nolakoa zen ikasi dute aurtengo ikasturtean herriko Langaitz ikastolako haurrek. Horretarako, *Itsas bazterrean*, herria ezagutzen liburuxka landu dute, herriko kultur ondarea ezagutzea eta zabaltzea helburu duen egitasmoaren baitan.

ALEJANDRA GOIKOETXEA



Ikasleak, Erreterriako Madalena ermitaren aurrean, txangoa hastear.  
500 urte lehenago, legenarra zuten gaixoentzako ospitalea zen ermita.

GOIZEKO 9:20 DIRA eta Erreterriako Madalena ermitaren aurrean elkartu gara Langaitz ikastolako ikasle eta irakasleekin. *Itsas bazterrean*, herria ezagutzen liburua lantzen bukatu berri dute 8-9 urteko haurrek eta ikasgelan barneratutakoa menperatzen duten ikustera atera dira kalera. Liburuxka horren bitartez, Erdi Aroan Erreterriak zituen ezaugarriak, portuak izan zuen garrantzia edota herriaren bizitza eta jardunak itsasoarekin zuen lotura ikusi dituzte.

Horrez gain, ordura arte Nafarroako Erresumako lurrak izan zirenak Gaztelak eskuratu zituenean, herriak jasan zituen aldaketak ezagutu dituzte; herriaren izen aldaketa eta harresitzea, besteak beste.

Langaitz ikastolan, Erreterriako beste sei ikastetxeetan bezala, herria bera ikasgai bihurtzeko hautua egin dute. Herriko kultur ondarea ezagutzeko eta ondare horren transmisioa bermatzeko, hezkuntza proiektu zabalaren eratzeko proposatu zion Udalak Hik Hasi

Euskal Heziketarako Egitasmoari. Emaizta sei liburuxka edo unitate didaktiko izan dira, adin ezberdinetan une historiko jakinak lantzeko. Hasieratik, herritarren beraien parte-hartzea bilatu da eta egitasmoa martxan jarri duten herriko zazpi ikastetxeek gain, herriko elkarte eta eragile ugari ere bere ekarpena egiteko aukera izan du; denen proposamenak eta aldaketak entzun ostean hasi ziren unitate bakoitza diseinatzen.

Zehazki, honako xedeak hartu ditu kontuan proiektuak: herritarren izaeraren kontzientzia indartzea, euskal kultura eta euskararen normalizazioa bultzatzea, gazteen artean herriko kontuak eta informazioak zabaltzea, ikastetxeekin trebakuntza eta hedapena lantzea, integrazioa erraztea eta, batez ere, herritarrengan herriarekiko, historiarekiko eta bizitzarekiko jakin-mina eta atxikimendua sortzea. Arantxa Urbe Hik Hasiko langile eta proiektuaren koordinatzaileak dioenez, herri baten eraikuntza, herria ezagutzetik hasten da: “Ezagutzen ez duzun gauza bat ezin duzu maitatu, ez baduzu maitatzen ezin zara inplikatu eta ez badago inplikaziorik, nola egingo du aurrera herriak?”.

### **Herritarren parte-hartzea bilatu da eta herriko zazpi ikastetxeek gain, elkarte eta eragile ugari bere ekarpena egiteko aukera izan du**

### **Erdi Aroko kaleetan barna**

Gaurko antolatu duten txangoa hasi baino lehen, ermita aurrean eserita daude ikasleak. Ermita duela 500 urte legendarra zuten gaixoak sendatzeko erabiltzen zutela gogora ekarri du haurretako batek. Une honetan atea itxita dituen arren, Madalenako festetan atea zabaltzen dituztela gaineratu du beste batek.

500 urte atzera eginez ari dira herria bisitatzen eta hurrengo galekua Foru edo Xenpelar enparantzan egin dute. Ingurura begiratu eta eraikinen dotoretasunari so, Donostiatik Erreteriarra garraiatutako merkantziak izan dituzte hizpide. Erdi Aroan portua kokatuta zegoen lekutik Ugarritza atearen aurrera joan dira eta bertan egin dute hurrengo pausagunea. Ikasleek eskua altxatu eta Ugarritzako atea gain beste lau atea non dauden eta daukaten izenaren jatorria errepasatu dituzte. Horien artean, merkatura joateko gurdientzako zabalduko Ugarritzako atea edota Nafarroara igarotzeko erabiltzen zuten Nafarroako atea. Parrokiaren ate nagusiaren parean, udaletxea aurrez aurre dutela, egin dute ibilaldiaren azken geldialdia. Ikasleek gustura komentatu dute udaletxea kartzela zen garaia,

## **EGIZU HARPIDETZA EGIOZU HARPIDETZA**

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo  
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan  
kobratu  
SEILORIK EZ

**argia**

1-FD POSTA KUTXA  
20160 LASARTE-ORIA  
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA  
Baimen zkia. 17352  
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

TOLESTU



## Ordizian eta beste hainbat herritan ere prest

Erreterian bezala beste hainbat herritan ere antzeko egitasmoa lantzen ari dira. Ordizian esaterako, harago joan dira eta paperezko euskarriaz gain web interaktiboa eratu dute, ikasleek beraien ariketak eta lanak igo ditzaten. Aipatu web orrialdea baliagarria izango zaie informazioa elkartrukatzeko. Oraindik ikastetxeetan lantzen hasi ez badira ere, Erdi Aroari buruzko unitate didaktikoa prest dute. Liburuxka horretan, Kattalin izeneko neskatilaren bitartez Ordizia nola hazi eta aldatu den, azoka-

ren historia, garai bateko bizimodua eta herriko pertsonaia esanguratsuak ezagutuko dituzte. Jolas eta ariketen artean, Patxi Zubizarretak idatzitako ipuinak eta Iñaki Muruak idatzitako bertsoak landuko dituzte ikasleek. Herri-tarrek Udalarekin elkarlanean osatutako proiektua da hau ere.

Proiektuarekiko interesa agertu dute beste hainbat herritan ere, tartean Duran-gon, Etxebarrin, Arrasaten eta Azpeitian. Dagoeneko unitate didaktikoak prestatzen ari dira horietako batzuetan.



eta gerora mutilentzako eskola izan zela ere kontatu die irakasleak.

Herria ezagutzen proiektua pozik hartu dute ikasleek. “Gure herriari buruz ez genezikien gauzak ikasten ari gara eta atsegin dut hori. Gainera, noizean behin herrira jaitsi eta gisa honetako txangoak egiten ditugu, ondo dago” esan digu gazte batek.

Historiaurretik hasi eta gaur egun arteko Erreteria ezagutzeko aukera dute ikasleek, sei unitate didaktikoei esker. 7-8 urterekin, Historiaurrea eta historia aroak lantzen dituzte. Hurrengo ikasturtean, Erdi Aroan murgiltzen dira eta horren ostean, 1638. urteko erasoaren ondoren Erreterian jendea pilatzeak ekarritako arazoak aztertzen dituzte, herriko

auzoen jatorria ere ikusiz. 10-11 urterekin, neurrigabeko eraikuntzen eraginez gertatutako uholdeak aztertzen dituzte ikasleek. *Orain, gu!* izeneko bosgarren liburuxkan berriz, Karlstadak eta Gerra Zibilak herrian eragindako ez hitz egiten dute. Azkenik, seigarren ata-lean, euskararen inguruko sentsibilizazioa lantzea da asmoa.

### Jolasen bitartez ikasten

Unitate didaktiko bakoitzak ikasleentzako ariketa dinamikoak biltzen ditu. Gurutzegramak, herriko argazki eta irudiekin osatutako ariketak, argitu beharreko mezu sekretuak, herriko hedabide eta elkartei buruzko azalpenak eta garaiko pertsonaia garrantzitsuei buruzko ipuinak, esaterako. “Gertuko kontuak lantzen ditugu, bertokoak, eta hori gogoko dute ikasleek”, diosku Maria Galardi irakasleak. Pertsonaia ezagunen kasuan, historiografia ofiziala zabaltzeko ahalegin berezia egin dutela aitortu du Urbek, pertsonaia historiko ofizial gehienak apaizak edo nabigatzaileak direlako, eta ikuspegi zabalagoa eman nahi izan dute.

Ibilaldia bukatu orduko hamaiketako banatzeko ordua iritsi da. Mari Zozaiakoaren historiaz galdetu eta haren amonak erakutsita sendabelarrekin ukenduak egiten zituen emakumea zela gogoratu du ikasleak. Bukaera tristea izan omen zuen Mariren bizitzak, izan ere, ezagunen batek salatu eta sorgin izatea egotzita epaitu zuten.

Aurtengo ikasturteko azken txangoari amaiera eman beharrean daude Langaitz ikastolako ikasleak. Erdi Aroan gertatutakoaren inguruan nahikoa hausnartu dute eta orain *Itsas bazterrean* liburuxkaren azken orria itxi dute. Hala ere, herriko historiaz oraindik bada zer ikasi, galdetu eta ikertu, eta horri ekin-gio diote hurrengo ikasturtean ere. ■



MARIA GALARDIK UTZIA



Historiaurretik hasi eta gaur arteko Erreteria ezagutzeko aukera dute ikasleek, sei unitate didaktikoei esker: Historiaurrea, Erdi Aroa, 1638. urteko erasoak, auzoen jatorria, uholdeak, Karlstadak, Gerra Zibila...





amejoramientoaK (ez zuk ez nik  
bozkatzetik izan ez duguna) dio:  
> **Nafarroa** espainia den enpresa  
handiaren parte da <

Kurioski errege katolikoak,  
espainia guztia batu, eta,  
Nafarroaren kontra bidali  
baitzuen, konkista militarrari  
ere enpresa erraten zion



Balio zuen, To!  
Hainbeste  
batailatzea...  
Geroko inutil  
hauek  
enpresaren  
hondoratzeko!!!



Imanol Alvarez

IRAKASLEA

## Homofobia

1

1995eko amaiera aldera, Estatuko talde gay-lesbiano guztiok manifestazioa egin genuen Madrilén, legealdia bukatzeaz zegoela, kanpainan eginiko promesa bete zezan eskatzeko Felipe Gonzalezen gobernuari: bikote-legea gauzatzea. Deialdiaren nondik norakoak erabakitzeaz azken batzarra Bilbo-ko EHGA Men egoitzan izan zen, eta bertan, besteak beste, Pedro Zerolo (egun Madrilgo Udalean zinegotzi eta PSOEko Gizarte-Mugimendu eta GKEekiko Harremanetarako Idazkaria) egon zen, garai hartan elkarte bateko presidentea zen heinean. Bileran, EHGA Mek proposatuta, agiriaren izenburua *Homofobiaren aurka* izan behar zela, eta lehen puntuan bikote-legearen ordeza, ezkontzeko eskubidea exijitu behar genuela ebatzi zen. Zerolo ezaguna da, dituen karguetatik ez ezik, bere burua aurkezten duelako sexu berekoen ezkontzen aitzindari. Inor gutxi daki, ordea, bilkura hartan sutsu jo zuela ezkontza aldarrikatzearen kontra, hala nola *Homofobiaren aurka* leloaren beraren kontra ere, Espainian (sic) ez omen zegoelako homofobiarik.

Gutxitan kontatu dut anekdota hau jendaurrean, baina gaur harira dator. Izan ere, gaur, ehgankideok, urtero urrezko hirukiarekin batera, trapuzko espartina “saria” ematen diogu homofobia nolabait adierazi



IÑIGO AZKONA

Gutxitan kontatu dut anekdota hau, baina gaur harira dator. Guk, ehgankideok, urtero urrezko hirukiarekin batera, trapuzko espartina saria ematen diogu homofobia nolabait adierazi duen lagun edo erakunde bati

duen lagun edo erakunde bati. Gurean homofobia badagoela ukazina da, munduko beste leku askotan bezain latza ez bada ere. Aitortu behar dut, alabaina, erasoak eraso, aurtan arazoak izan ditugula hautagai esanguratsu bat aurkitu ahal izateko. Orain pare bat hilabete ez genuen izen bakar bat ere buruan. Halako batean, aldiz, hasi zitzaizkigun metatzen. Lehenengo, Alcalako apezpikuak merezimendu denak egin zituen, TVEn esandakoengatik, infernura bidaltzen baikintuen *homosexual* guztiok. Asper eginda gaude, ordea, horrenbestetan eliza-gizonei abarketa eman izanaz; ondorioz, nahiago genuen beste norbait bilatu. Hortik gutxira, *Intereconomía*, mota guztietako askatasunei egin ohi dizkieten erasoez gain, perla ederrak bota zituzten homosexualitateaz, gotzaina defenditu nahian. Hautagaia bageneukala uste genuenean, horra hor heldu zen Wert ministro *peperoa* eta markak hautsi zituen, irainak bota beharrean —irainak, azken batean, hitzak dira eta haizeak ei daramatza—, ekintzak plazaratu baitzituen: Hiritasunerako Hezkuntza irakasgaiari, izena aldatzeaz gain, izana ere aldatu dio, besteak beste, homofobia gaitzesten zuen atala eta askatasun afektiboari buruzko aipamen oro kenduz. ■



TXANDAN

Andoni Mujika



Dimentsio handia daukan proiektua logika komunitario autoeraturtik abiarazi dute Arrasaten. Une honek daukan alternatiba egarriari alternatiba batek eman nahi dio edaten, pentsamendu eta praktikaren iturritik. Kontua da Arrasateko azoka birpentsatzeko ekimena martxan jarri dutela Arrasateko Udalak eta Bagarak, hainbat eragilarekin batera. Azoka biziberritzeko eta kontsumo ohiturak eraldatzen laguntzeko espazio bat irudikatu nahi dute kolektiboki. Horrez gain, beste hauek ere lortu nahi dira: eragileak egitasmoaren subjektu bihurtzea

## Arrasateko Azoka

(50 eragilek baino gehiagok egin dituzte ekarpenak); udalgintzan esperientzia berri-tzailea aktibatzea (udal teknikariak, zinegotziak, herri-eragileak eta Bagarakoak elkarrekin lanean jarritz); eragile eta herritarren arteko harremanak harilkatzea; eta azkenik, estrategikoak izanik ere, bigarren mailan geratzen diren arloei (tokiko eta bidezko merkataritza, elikadura, hurbileko nekazaritza, produktu ekologikoak, jolasgune eredu berriak...) ikusgarritasuna ematea. Zorionak Arrasate, eta Debagoiena, beste behin ere gizarte berrikuntza laborategia izateagatik. ■



Joseba Iturriz

MEDEAK TALDEKO KIDEA

## Shock Doktrina

**I**nternen dabilen bideo bati izena lapurtu diot, idatzi honi izenburua emateko. Gure gizarteak horrelako dokumental asko behar ditu. Informazioa eta formazioa behar ditugu, engainatuak bizi garelako. Krisi hau erabat sortua da, kapitalismo fundamentalistak sortutako krisia da. Proposatzen diren erreformak, murrizketak, aldaketak... ez dira gure onerako, kapitalen kontzentrazioen-tzat dira onak, ez gizartearentzat, ez herri-tarrentzat.

Dokumentalak indar militarra, elektro-shocka, terapiak, futbola, kapitalismo fun-damentalista eta egungo egoera uztartzen ditu. Ondo erantzuten die hurrengo galde-rei: zergatik jasaten du jendeak? Nola iritsi gara horrelako sistema kaotiko, tiraniko eta bortitza onartzera?

Chicagoko eskola ekonomikoak, eta haien buru izan zen Milton Friedmanek, 50eko hamarkadan psikiatriak erabilitako elektroshock terapia hartu zuten paradigma. Elektroshock terapien helburua jen-dearen erresistentzia guztiak hondatzea eta haien nortasuna birmoldatzea zen. Hortaz, ez da harritzekoa terapia hauek gehienbat lesbianei, homosexualei, emakumei, komunitei, anarkistei eta beste erresistente batzuei ezartzea. Terapia hauek ez dute inoiz inor sendatu, bere helburua ez zelako



DANI BLANCO

sendatzea. Makroekonomian, karga elektri-koak erabili beharrean, gerrateak, atenta-tuak, estatu kolpeak eta horrelakoak erabil-tzen dituzte, askotan hondamendi naturalak ere birziklatu egiten dituzte. Beraien meto-dologia sinplea da: jendea astindu, eskubi-deak murriztu eta futbol asko. Eskola psiko-pata honek bezeroen artean, Pinochet, Margaret Thatcher, Ronald Reagan, Bush –aita eta semea– dauzkagu. Beraien politika ekonomikoak mundu osoa kutsatu du. Hauen ustez, merkatuek bakar-bakarrik kudeatu beharko lukete mundua. Gizartearen bizi baldintzak ziurtatuko lituzketen interbentzio guztien kontra daude.

Egun bizi ditugun murrizketa eta erreskate guztien helburua ez da gizartea salbatzea. Neurriek, erreskateek eta Europak kapital handien lehentasuna bermatzen dute, eta gure bizitza kapital neoliberalen zerbitzura jartzen dute.

Hobe da ulertzea dirua ez dela jaten. Gure gizartearen lehentasunak bizi baldintzak ziur-tatzea izan beharko luke. Egungo kapitalis-moa oso arkaikoa eta basatia da. Gizakiak gai izan beharko luke gizarte orekatu, justu eta berdinzalea eratzeke. Dena dela, egun daukagun kapitalis-mo kaotiko hau baino zerbait hobe egiteak erraza izan behar-ko luke. ■



« Beraien metodologia

sinplea da: jendea  
astindu, eskubideak

murriztu eta  
futbol asko »

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



despedida. Azkena, bidekoa luzatzen ari den trago-zalea lege-z nabilkizue ni ere *Hiruko txikian* honetan, luzaz nire gelatxoia izan dudana etxean. Ez dizuet esango plazera bildu izan dudala aldiro, konpromisoa eta atsegina ez dira bat beti, asmatu ezinak ere zama dakarkio ari denari. Ez ditut falta izan animatzaileak, inguru hur-bilean dauzkadanak, artikuluxken iritziakin inoiz gozatu egin dutela adierazi didatenak, bidea geroz eta malkartsuagoa ibiltzen lagundu nautenak. Bere anpa-roan bizi erdia egin dezadan utzi didan etxe honi eskertu behar diot nirekiko izan duen babesa, sekula

### Hauxe da

santan bere barnean hotzik sentiarazten utzi ez didana, nire purrustak eramaten jakin izan duena. Jakitun naiz etxe honen mantenuak zenbat buruhauste dakarkien ugazabei, gure idazkiak argira egin ditzaten ematen dituzten ezkutuko lanak, gure irakurleentzat ikusezinak dire-nak. Euskalgintzak beharrezkoa duen etxe honek, gutxitan biltzen ditu eskerronak, gehiagotan bilakatu izan da zenbaiten mespretxu gune, tiki ahulen patu. *Hiruko txikian* hau uzten badut ere, etxe honek beti izango nau etxeke, mantenu lanetarako prest. Irakur-leei ez adiorik, istante arte. ■





## BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

### Marianok egin eban



XDZ

#### I

Marianok egin eban  
kartoizko herrix  
marroi, moldakor eta  
eroangarrix.  
Hasi zan mozten eta  
jausi zan guztixe:  
Marianok sortu eban  
kristoren krisixe!

#### III

Zulotik atarata  
harexen gorpua,  
Europak hasi eban  
miliarren tratua:  
“Berrogeigaz egingo  
dok pulamentua?”  
“Ez al zan europarra  
propina kontua?”

#### V

Erreskatatu eben  
goraino bustirik  
zorra egindakoei  
ezer esan barik.  
Ganera, ez dagoenez  
bape damuturik,  
ez jaku faltatuko  
kartoizko herririk!

#### II

Nahi ez ebanez gero  
Mariano hiltzea,  
Europak esan eutson:  
“Hi haz gurutzea!  
Orain gurako dok neuk  
erreskatatzea!”  
“Bai, baina inporta al zaik  
‘laguntza’ deitzea?”

#### IV

Marianok ehun eskatu  
eutsozan kolpean,  
bai eta hartu ere,  
nahiz izan kaltean...  
Danak amaituko dau  
halako batean,  
barriz, Urdangarinen  
kontu korrontean.

#### VI

Zorrak eta sariak  
behera eta gora,  
ihesi joan jakoz  
ta ez daki nora!  
Orain pentsamendu hau  
jatorku gogora:  
“Uganda izan bagina  
danontzako hoba!”



**DOINUA:** Markosek egin eban.



Bidali zure sortak [bertsoak@argia.com](mailto:bertsoak@argia.com) helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

# erdiko katera

Ana Diez

## «Bizitza gatazka da, ez zaizkit komediak ateratzen»

ETako kide baten eta haren lagun droga-saltzailearen arteko harremanaz mintzo da Ander eta Yul (1989). Batez ere film horregatik da ezaguna Ana Diez, baina filmografia oparoa du zuzendari tuterarrak. Atzera begirakoa antolatu dio Euskadiko Filmategiak eta Diezen lanari buruzko liburua plazaratuko dute uztailen.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Argazkiak: Dani Blanco

*Elvira La Cruz, pena máxima* dokumentala (1985) izan zen zure lehen lana, betirako kartzela-zigorrera kondenatu zuten emakume mexikar bati buruzkoa. Kuba, Kolonbia, Uruguai ere izan dira zure filmen eszenatoki. Zerk erakartzen zaitu Latinoamerikatik?

Mexikora noanean berriz ere jaiotzen naizela esan ohi dut, jarduera aldetik behintzat. Osasun publikoaren inguruko doktoretza egitera joan eta hango zine eskolan bukatu nuen. Espainian ikusten ez zen zinema mota deskubritu nuen Latinoamerikan, eta bai, gizarte horrek erakartzen nau, partekatzen ditugun gauzek, baina batez ere ezberdintasunek, hain da anitza kultura, herrialde bakoitza ere oso ezberdina eta konplexua baita Latinoamerika barruan. Herrialde bakoitzak indigenismoaren gaia nola tratatzen duen, nola gauzatu zen nekazaritza erreforma, hiriak eta burgesiak nola eraiki diren... Eroso sentitzen naiz han.

Egokitu zaien leku eta garai jakinean pertsonaiak nola moldatzen diren, horretaz diharduzu film ugaritan, testuinguru politiko eta sozialaren eragina nabarmenduz. Makrohistoria eta istorio pertsonalak orekatzean datza gakoa?

Hala da. Historia bere horretan nik ezin dut jorratu, gutxiago zinegile modura, ezjakintasunagatik eta historia konplexua delako, baina egia da nire pertsonaia guztiak inguru sozio-historiko oso jakinetan mugitzen direla, alegia pertsonaiak era batera edo bestera jokarazten dituen inguru hori interesatzen zaidala. Historia "handi" horren barruan, oso istorio intimorak dira beti, pribatuak. Adibidez, *Paisito* bi familiaren istorioa da, diktaduraren bidegabekeria



"Sekuentzia bakoitza pelikula txiki bat da, eta horregatik saiatzen naiz sekuentzia bakoitzean emozio jakin bat transmititzen".





oso modu ezberdinean sufritzen duten bi familiarena, baina nire asmoa ez da diktaduraren nondik norakoak aztertzea, baizik eta diktadura jasan zuten familia batzuei gertatutakoa kontatzea. Diktaduraren aurrean zer egin oso argi ez daukatenak, nola egiten dioten aurre... Berdin *Todo está oscuro* filmean: Kolonia desegituratzen ari denean astebeterako hara doan emakumearen ikuspuntua jasotzen dut, ez herrialdearen desegituratze osoa.

**Baina azken batean, aukeratzen duzun istorioak baldintzatuko du testuinguru sozio-historiko horretaz emango duzun ikuspegia.**

Jakina. Mikrohistorio horiek jorratuta, pentsatzen dut ikusleak sentitu dezakeela dramatiko ki eraiki edo islatu nahi dudaren errealitatearen ikuspuntua. Mugitzen diren inguruaren nola baiteko analisia egin nahi dut nire pelikulekin. Azken finean, errealitateaz mintzo naiz askotan; fikzioa dokumentatzen dut, eta dokumentalak fikzionatu. Beti mugitzen naiz bien artean, dokumentala egiten dudanean bilatzen ditut errealitatea islatzeko hoberen etorriko zaizkidan elementu dramatikoak, eta fikzioa egiten dudanean, ikertu eta dokumentatu egiten naiz, pertsonaiek testuinguru historiko horri nola aurre egin zioten jakiteko, sinesgarriak eta koherenteak izan daitezen. Dena den, obra guztiak dira subjektiboak, dokumentala nahiz fikzioa, beti ematen diozu zure ikuspegia kontatzen ari zarenari.

Testuinguru erabakigarri horietan, pertsonaia arruntak aukeratzen dituzu, ez heroiak.

Bai, eta horregatik uste dut ez direla pertsonaia manikeoak, dilema moralak eta anibalentziak dituzte, zalantzak... Gu guztion antza dute azken finean, heroien epika dugulako gogoan, baina erabakitzeke unea iristen denean beti ditugu zalantzak.

*Madrid, mon amour* laburrean 2004ko egoera salatzen duzu, PPren gobernupean, eta manifestarienganako poliziaren errepresioa da gai nagusia. Gaur egun hartutako irudiak dirudite. Holokaustoaz txantxetan, Woody Allenek

pelikula batean zioen erronkak gainditzeko asmatu zirela, esanez bezala errekor hori ere gaindituko zutela... eta beldurgarria da. Baina hain zuzen, polizia-estatua, PPK ezarri nahi duen Anaia Handiaren estatua izugarria da, krisiaren kontrako neurriak ezarri aurretik kexatu ez zaitezten Barne Ministerioaren neurriak datozelako, adibidez elkarretaratze baketsuak autoritatearen kontrako erasotzat hartzea. Beraz, bai, film labur harekin antzekotasunak daude, baina gaindituta, egungo egoera Irakeko gerraren aurkako mugimenduaren garaikoa baino askoz okerragoa baita.

**Memoria da ihesbidea, film labur horretan. Hain zuzen, gertaera historikoak kontatzeko distantzia hartu ohi duzu zuk; hobe al da jazitakoa ondo islatzeko denbora pasatzen uztea?**


Gertakari sozial batzuk kontatzeko distantzia hartzea hobe da hainbatetan, baina egia da unean egindako oso obra onak daudela baita ere. [Patricio Guzmánen] *La batalla de Chile* esaterako, Allende boterean zegoenean egina,

oso analisi zuhurra da, oraindik ere balio duena. Ez dakit zer izango den onena, baina kontua da zerk motibatzen zaituen, eta manikeismoan erori gabe egiten jakitea. Azken finean, historia horretan inplikaturik egon bazara memoria bera zauri bilakatu daiteke, eta zauria ondo sendatu daiteke edo ez... Memoria beharrezkoa da, halere, herritarrek sufritu dutela sentitzen duten bidegabekeria aztertzea eta azaleratzea.

da, halere, herritarrek sufritu dutela sentitzen duten bidegabekeria aztertzea eta azaleratzea.

***Ander eta Yul* filmaz zera zenioen garaiko elkarriketa batean: "Ez dut pelikula politikoa egin nahi izan, ezta, batik bat, tesi politikodun pelikula". Hori lor daiteke, ETA mintzagai duzula?**

Esan nahi nuen nire asmoa ez zela izan tesirik egitea, lehen adierazi moduan mikroistorioak direlako kontatzen ditudanak. Kasu honetan, militante baten eta haren lagun droga-saltzailearen istorioa da, helburua ez da militantzia abertzalearen fenomeno osoa aztertzea, baina aldi berean bai islatu nahi izan nuen fenomeno horren aurrean gizarte hain txikian gertatzen ari zen zatiketa, alde edo kontra egon beharra, eta jarrera garbirik ez iza-



teak, erdibidean geratzeak harreman pertsonal ugari nola hondatu dituen.

1989ko Donostiako Zinemaldian bi emanaldi eskaini zituzten, eta bietan isiltasunez hartu zuen filma publikoak. Ez txalo, ez txistu.

Hala da. Tomaterik ez zidaten jaurti, baina txalorik ere ez zidaten jo eta erreakzioen bat espero duzu, alde edo kontra. Pelikulan ez daude onak eta gaiztoak, ideia batzuetan sinesten duen militantea dago batetik eta biziraupena helburu duen laguna bestetik; baina militante ona bada, laguna hil behar du bukaeran, bestela beste pelikula bat izango zatekeen, eta militantzia horren metodoei kritika egiten zaio. Beharbada horregatik harrera hori, inork ez zuelako bere burua heroi gisa islatuta ikusi, baina ezta pelikulako maltzur gisa ere. Bakoitzaren iritzia eskutik utzi nuen ikusitakoa baloratzea, helburuek bitartekoak justifikatzen al dituzten erabakitzea. Protagonistak izan ditzakeen zalantzak ikusleari helarazten dizkiot, nolabait.

Zuzendari berriaren Goya saria eman zizuten filmagatik, baina aldi berean kritika txarrak jaso zituen hemengo prentsan.

Egia da Euskal Herriko prentsak ez ziola harrera ona egin, baina pelikula oso txarra zenik ere ez zuten esan, zeren bost urtetako lana bi lerrotan pikutara bidal diezazuke kritikariak. Dena den, bitxia da bai hain iritzi

**Ezker eskuin: *Elvira La Cruz, pena máxima; Ander eta Yul; Todo está oscuro; La mafia en La Habana; Algunas chicas doblan las piernas cuando hablan; Galíndez; Madrid, mon amour; Paisito.***

**"Nire pelikulak paradisu galduezt mintzo direla ohartu naiz, nire pertsonaiek bide bat ez hartzea erabaki zutela eta horrek betiko markatu dituela"**

ezberdinak jasotzea, militanteak hartutako azken erabakiaren inguruan hausnarketa ezberdina egingo zuten batzuek eta besteek. Gaia oso zaila eta polemikoa zen, eta batzuek ez zuten gustuko izan emandako tratamendua, ETAK droga-saltzaileak hiltzeko kanpaina bertan behera utzia zuela esan zidaten; gainera gizajo bat —eta ez trafikatzailerik handi bat— baino ez den droga-saltzailea akabatu behar du protagonistak eta batzuek ez zuten ondo hartu ETAz emandako irudi hori.

**Euskal Herri iluna, goibela irudikatu izana kritikatu zizuten. Hala gogoratzen duzu garai hartako Euskal Herria?**

Halaxe gogoratzen dut. Industri birmoldaketara garaia zen, langabetu kopuru handiarekin, eta gutxi gorabehera egonkortua zegoen trantsizioak desilusio handia utzi zuen jendearen artean. Eta droga zegoen nonahi, heroina batik bat, Donostia, Iruñea edo Bilboko alde zaharretan. 1982an utzi nuen nik Euskal Herria eta bueltatu nintzenean bestelako paisaia aurkitu nuen, iluna guztiz.

Gainerako pelikulei ere, kutsu beltza, hitza darie oro har, thriller eta suspentse ukituarekin, biolentzia, heriotza, mafia, usteleria bezalako gaiak tarteko. Zure filmografian behintzat, bizitza ez da arrosa kolorekoa.

Bizitza errautsetatik birsortuta eraikitzen da sarri, etengabe dagokigu berriz jaiotzea, gataz-

**tradEBI**  
EB Traducciones Itzulpenak, S. L.  
[www.tradEBI.com](http://www.tradEBI.com)





## 27 urte kamera atzean

Medikuntzako doktore tesia egitera joan zen Mexikora, baina bertan zine zuzendaritza ikasten amaitu zuen. Han jaio zen *Elvira La Cruz, pena máxima* (1985), eta beste hiru dokumental egin ditu orduetik: *La mafia en La Habana* (2000), *Galíndez* (2002) eta *Madrid, mon amour* (2004). Fikzioan berriz, zuzendari berri onenaren Goya Saria irabazi zuen *Ander eta Yul* pelikularekin (1989) eta *Todo está oscuro* (1997), *Algunas chicas doblan las piernas cuando hablan* (2001) eta *Paisito* (2008) filmatu zituen ondoren. Orain, Manuel Hidalgo eta bien artean idatzitako *La puerta del amor* errodatu nahi du, "nahiz eta produkzioa aurrera ateratzea nekeza izaten ari den, garai zailak direlako".

kei aurre egitea, bizitza gatazka da, eta segun eta zein ingurutan bizi zaren, guztiz erretzera eraman zaitzake edo erredura txikiak jasatera, atsekabeak, horietatik berriz ere jaiotzeko. Zilegi iruditzen zait norbaitek bizitza arrosa kolorez ikustea, baina ni ez naiz gauza. Batzuetan, komedia on batek oso ondo kontatzen dizu bizitza, tragediak baino hobeto, baina niri ez zaizkit komediak ateratzen.

Euskal Herrian film luze gehien errodatu dituen emakumea zara. 2009ko ikerketa baten arabera, Espainiako Estatuan zine zuzendarien %9a baino ez da emakumezkoa.

Irakasle aritzen naiz Madrilgo Zine Eskolan eta askoz gehiago dira emakumezko ikasleak, baina gero ez dira iristen goi-karguetara, oztopo ikusezinei egin behar diete aurre, integrazioa ez da erabatekoa. Eta emakume gehiago egotea aberatsa litzateke, ikuspegi anitzak ekartzeko, nahiz eta emakumeen artean denetarik dagoen, nik ez dut adibidez Margaret Thatcher defendatuko, berdin dit emakumea izatea.

Eta nola irakasten da "zinemaren magia"?

Pazientzia handiz, eta funtsean, maisulanak aztertuz. Orson Wellesek zioen lengoia arra-


tsalde batean irakatsi daitekeela, baina emozioak kontatzen eta transmititzen ereduak aztertuz ikasten da. Ea zein plano, kamera mugimendu, soinu banda, argi... erabili dituzten zuzendari handiek emozio jakinak transmititzeko.

Zuk nola transmititzen dituzu emozioak?

Nik esan ohi dut gidoi onetan, sekuentzia bakoitza pelikula txiki bat dela, unitate dramatiko funtsezko bat, eta horregatik saiatzen naiz sekuentzia bakoitzean emozioak sortzen, emozio jakin bat transmititzen. Batzuetan asmatzen dut eta beste batzuetan ez, bilaketa lana da.

Atzera begirakoa eta liburua dela-eta, zure filmografia berrikusi ahal izan duzu. Nabardura berriak atzeman al duzu?

Egia da nire filmografiaren hainbat ezaugarri azpimarratu dizkidatela eta orduan ohartu naizela horietaz. Esaterako, nire pelikulak paradisu galduez mintzo direla; nire pertsonaiek bide bat ez hartzea erabaki zutela bere garaian eta horrek, paradisu galdu horiek, betiko markatu dituela. ■






# EUSKAL OROIGARRIA

# MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

**Eskaerak:**

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15  
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)  
© 943 371 545 - [denda@argia.com](mailto:denda@argia.com)

[www.argia.com/denda/makilak](http://www.argia.com/denda/makilak)





## Literatura

## Bai Mundu Berria Asmatu zuen Huxleyk?


80 urte dira aurten *Bai mundu berria*, Aldous Huxley ingelesaren eleberri ospetsua argitaratu zela. Distopien generoko nobela bati dagokionez, behin denbora nahikoa igaro delarik, saihestezina da aztertzea egileak zertan asmatu zuen, eta zertan huts egin. Bekatu hori egitear gaude gu. Barkatzeko moduko bekatua nolanahi, bere lanaren bertute eta akatsen bilatzaile porrokatuenetakoa Huxley bera izan zela kontuan hartzen badugu.

UNAI BREA

GAIXOTASUNA, gerra, pobrezia eta zahartza-roa desagertu diren gizartea deskribatzen du *Bai mundu berriak*. Haatik, ustezko paradisu horretan kokatzen da distopien generoko obra gorenetakoa, urrezko domina eskuratzearren 1984rekin etengabeko lehian, eta hura baino etorkizun beldurgarriagoa deskribatzen duela, egile askoren iritziz. Huxleyren eleberriaren analisi kanoniko batean ezin falta daitekeenez Orwellenarekin konparazioa –Huxley bera ez zen tentazioari eusteko gauza izan–, hortik abiatuko gara gu ere, bien arteko diferentzietatik bat nabarmenduz: 1984 barrutik zein kanpotik da distopikoa; *Bai mundu berria*, neurri handi batean, kanpotik baino ez. Saia gaitezen esandakoa argitzen.

George Orwellen eleberriko pertsonaiak giro itogarrian bizi diren hein berean dira zoriontsuak *Bai mundu berriak*oak. Huxleyren nobelan, irakurlea da gizarte antolamendua- ren izugarrikeriaz ohartzen den bakarra. Kasik. Beharrezkoa da “kasik” hori, istorioak aurrera egingo badu; bestela, liburua ez zen izango etorkizun posible bati buruzko saiaker- ra laburra baizik. Bidenabar esan dezagun distopia askoren elementu komuna dela agin- teari oldartzen zaion protagonista, nolabait irakurlearen pentsamoldea ordezkatzeko duena. Hain zuzen, borroka horrek ematen du bidea distopiaren deskribapen behar bezain sakona egiteko.

*Bai mundu berriak* ez dio baliabide horri uko egiten, bere kasuan bereziki sinesgaitza izanik ere. Literaturaren historiak emandako mundu distopiko guztietan, Huxleyk asmatutakoa da akaso errepresioan oinarritzen ez den bakarra. Kanpoko behatzailearentzat zapalkun- tzaren gailurra den gizartean, herritarrek




**Ernaltze artifiziala  
*Bai mundu berriaren*  
osagai nagusietakoa  
da. Banako guztiak  
saio-hodietan  
sortzen dira, beren  
ezaugarri genetikoek  
kontrol zorrotza  
egiten duen  
prozesuaren bitartez.  
Pertsona bakoitza  
gaitasun intelektual  
jakina izateko eta lan  
espezifikoak egiteko  
programatuta dago.**

pozik bizi dira, zapalkuntza horretaz jabetu gabe. Egokitu zaien bizimodua, eta ez beste bat, desiratzeko programatu dituzte beren haurtzaro osoan zehar, saio-hodi batean ernaldutuzten unetik; izan ere, promiskuitatea balore duen jendartean, sexua eta ugalketa bereizita daude. Ez dago familiarik, ez harreman afektiborik, ezta horiei lotutako gorabehera emozionalik. Izen hori merezi duen arterik ez da inon ageri, eta kezka intelektual oro ezabatua izan da, baina horien beharrik sentitzen duen inor ez dago. Umeen programazioarekin batera, egonkortasuna da zoriontasunaren giltza. Sistemaren balizko akatsak –alegia, frustrazioak– prebenitzeko, estatuak neurri gabeko kontsumoa eta biha- ramunik gabeko droga jartzen ditu herritar- ren eskura.



**Aldous Huxley (1894-1963)** intelektualez eta zientzialariz osatutako familia bateko kidea zen. Aita eta aitona, barbarako, entzute handiko biologoak izan ziren. Agian horregatik, XX. mendeko gizarte aberatsen bilakaeran biologiak izango zuen garrantzia aurreikusteko gauza izan zen.



Antolakuntza zurrun eta perfektu horretan bere bizimoduaz nazkatuta dagoen pertsonaia bat existitze hutsa, beraz, narrazioaren akasztat hartu beharko litzateke, baina narrazioak aurrera egiteko ezinbesteko akatsa da. Ez gara horrekin gehiegi tematuko. Azken batean, etorkizunak ekar ditzakeen gizarte egituren analisiarengatik izan da goratua —batez ere— *Bai mundu berria*, ez literatur lan gisa daukan mailagatik. Huxleyren merituetako bat, honenbestez, gizarte aberatsenetan hedonismoak erdietsi duen garrantzia aurreikusi izana da, obra inperfektu baten bitartez bada ere.

### Huxleyren distopia gauzatzea da Mendebaldearen ametsa?

Eleberriaren analisi interesgarri eta zirikatzaileenetako bat Michel Houellebecq idazle frantziarrak egindakoa da. Non eta beste nobela batean, *Les particules élémentaires* (Oinarrizko partikulak), 1998an idatzia. Pasarte batean, Houellebecqek Bruno izeneko pertsonaiaren ahoan ipintzen du Huxleyren lanari buruzko hausnarketa. “[Bai mundu berria idatzi zenetik] mendebaldeko gizarteak eredu horretarantz hurbildu besterik ez du egin. (...) Farmazeutikaren aurrerapenei esker, bizitzaren adinen arteko aldea ezabatuko da. Huxleyk deskribatu zuen munduan, 60 urteko gizakiek 20 urtekoen itxura eta grina berberak dauzkate. Gizarte zoriontsua da, zeinetik desagertu baitiren tragedia eta sentimendu bortitzak. Hori da guk bizi nahi genukeen mundua”. Houellebecqek asmatu izana aitortzen dio Huxleyri; lerro artean atzeman daitekeen kritika da Huxleyk beldurgarritzat hartzea etorkizun hori.

Pixka bat aurrerago, Brunok, edo Houellebecqek, nahiago duzuen, Huxleyren kontrastesak utzi nahi ditu agerian. Idazle ingelesak *Island* (Uharte) eleberria argitaratu zuen 1962an, *Bai mundu berria* baino 30 urte geroago. Jendarte idilikoa deskribatu zuen bertan, baina Bruno-Houellebecqen ustez bien arteko antzekotasunak askoz handiagoak dira Huxleyk onartuko zukeen baino. Hortik ateratzen duen ondorioa zera da: gizarte hippyaren eta gizarte liberal burgesaren arteko aldea oso txikia dela. Ez da ahaztu behar Huxleyren ideiak, haren bizitzaren azken urteetan, hippy mugimenduaren euskarri teorikoetako bat izan zirela, eta azken beltzean horixe dela *Island* nobelan islatu nahi izan zuena. Ahaztu behar ez den bezala hippy mugimendua eta, oro har, *new age* delakoa direla Houellebecq eskuindarraren kritiken jomuga usuenetakoa.

Huxleyrentzat laudorio gehiago ere bada *Les particules élémentaires*en, egur adina. Brunok dioenez, gizartearen bilakabidea, gero eta gehiago, zientziaren garapenaren arabera izango zela ederto igarri zuen egile britainiarrak, baina ez zuen kontuan hartu horren ondorioetako bat, azken batean —hala interpretatzen dugu Houellebecqen hitzetatik— ezinezko bihurtzen duena *Bai mundu berri*ko gizartea: heriotzaz kontzienteago garen heinean, indibidualismoa gailentzen da, eta horrek desiora garamatza; areago, desioa da gizartearen hauspoetako bat. Huxleyren distopian, berriz, ez dago bete ezin daitekeen desiorik. Gaurko gizartearen azaleko azterketa egitea aski zaigu tanto hori Houellebecqentzat dela aitortzeko. ■





# Liburuak

KRITIKA



*Neure buruaren alde.*  
Koldo Zuazo.  
Alberdania, 2011.

Helduen literatura | NOBELA HISTORIKOA

Gema Lasarte

## Zaila yaizten zaik gure eskueria?

ELEBERRI HISTORIKOA idatzi ahal izateko dokumentazio jorrak aski lan nekeza behar du izan, okertzeko beldur handirik gabe urteetako txindurri lanadela ere generake. Koldo Zuazok 1574. urtera garamatza eta tenore hori Euskal Herrian eta Ameriketara irudikatu digu. Beraz, sasoi hartako ofizioak, bekatuak eta aginteak ondo islatzen ahalegindu da. Eta Otxandion hasitako abentura Ameriketako Basoa herrixa indigenan bukatzen da. Esan behar dut, Javier Rojok liburu honi egindako kritika birekin bat egiten dudala, Euskal Herriko garai hartako bizimoldea irudikatzeko orduan askozaz ere zehatzago eta finago ibili dela Zuazo, Ameriketara iritsitakoan askoz ere orokorragoa eta historikoa baino abenturazkoa bilakatu duelako kontakizuna. Bigarrenik, Rojok dio pertsonaiak (Martin Garaigordobilek) XVI. mendeko ikuspuntua eduki beharrean sarri XXI. mendeko idazlearen ikuspuntua hartzen duela, hizkuntzari nahiz politikari egiten zaizkion erreferentziak bide.

Hirugarrenik, ene baitan, Koldo Zuazoren dialektologia lana ezagututa, eleberria irakurri aurretik konbentzitua nengoen euskara bikaina gozatzeko aukera izango nuela: aurreko liburuen antzera hizkuntza festa izango zela, alegia; eta ez naiz ibili batere oker, ez horixe, Zuazo hizkuntzalari handia baita. Baina, uste nuen, Martin Garaigordobilek garai hartan egiten zen euskarara eramango ninduela, bere garaian *Otto Pettek* egin zuenaren antzera. Baina ez, Martin Garaigordobilek (1512-1574) euskara garbia hitz egiten du, seguru aski, Markos ere badelako eta Markosek Basoako hizkuntza ez ezik nahualta ere hitz egiten duelako. Garai hartako euskara gutxi azaltzen da, Martinek Ameriketarako bidea hartzeko Sevillara egiten duen bidean urdiaindar batzuekin topo egiten duenean eta haiek garaiko euskaraz mintzo direnean. “Autz itzak hiaurre hatuek gurdi gainien, beste hoiek bekela (...) Zaila yaizten zaik gure eskueria?”. Besterik ez, Anbotoko otso gorria!

Martin-Markos protagonistak bizitza guztia soldatuen ihesi dabilen errementeri baten nondik norakoak kontatzen dizkigu lehen pertsonan. Artean maitasuna, adiskidetasuna eta leialtasuna bihurtzen dira ardatz nagusi. Asteburu batean, besterik ezean, etxearen epelaren arrimuan edota hondartzan aski erraz leitzen den eleberria da Zuazok idatzi diguna, abenturaz gainezka egiten duena eta ortzemugan historia ere baduena.



*Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian.*

Erramun Baxok,  
Jean-Baptiste Coyos.  
Euskaltzaindia, 2012.



## Gazteek aisialdian euskaraz egin dezaten

JAGON SAILAK argitaratu duen 15. zenbakia dugu *Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian* liburua. Erramun Baxok ohorezko euskaltzainak eta Jean-Baptiste Coyos euskaltzain urgazleak idatzia da eta 2010ean XV. Jagon Jardunaldietarako elkarrekin prestatutako hitzaldia du aitzindari. Baxenafarroa, Lapurdi eta Zuberoako gazteek, aisialdiari dagokionez beti ere, euskarazko edota euskal kulturari lotutako zein jardun hautatzen duten aurkeztea du xede nagusi azterketa honek.

Mota honetako ikerketa-liburuetan gertatu ohi den moduan, bereziki liburuen amaierak erakarri du gure interesa; azterketaren nondik norakoek baino gehiago, amaieran eskaintzen diren ondorioek eta gomendioek. Gazteak euskarara eta euskal ekoizpenetara nola erakarri, edota euskal produktuak eta zerbitzuak publiko berrientzat erakargarriak izan daitezen zer egin, indarguneak eta ahuleziak zeintzuk diren, horiexek argitzera datoz.

Besteak beste, “euskarazko irakurketa bultzatzeko haurrentzat bezala gazteentzat ere mota guztietako liburu bilduma bat sortu behar litzateke, erakunde publikoek eta argitaletxeek edota Ikas pedagogia zerbitzuak parte hartuz”. Edota, “Aisialdi zientifikoa eta ekologikoa gazteei euskaraz eskainiko zaie ikastetxeen barnean, bai eta ere kanpoan tokiko aginteek eragileak sostengatzen dituzten neurrian”.

Bi hizkuntzatan idatzita dator: euskaraz eta frantsesez. |



# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**KKLRD.**  
Askoren artean.  
Bonberenea ekintzak.  
Iraupena: 09'26".  
7 euro.

## Etorkizun hurbileko erretratuari abesten

GURE ARTEAN ezohikoa da musika beste diziplina batzuekin batera aurkeztutako lanak plazaratzea. KKLRD izenpean lau musika taldek eta marrazkilari batek osatutako EP+CD+komiki-lana batu dituzte. Mundua pikutara doa eta Joseba Larratxe 'Josevisky'-k hurbil daukagun egoera hori marraztu du. Madrilgo Zinc taldeak zabaltzen du lana, eta Dulcek, punk-hardcorea medio, melodia eta amorrua gehitzen dizkio. Hanka bana Kantabrian eta Euskal Herrian dituen

Estricalla da hurrena: *Zapatilla* hutseko hardcore-punk azkarra Fer Apoaren ohiko markarekin. Hurrengo kolpea Zarauztik dator Euskal Herriko undergroundeko talde mugituenarekin: muturreko hardcorea bi abeslarirekin lantzen badute ere, honakoan goxatu dira. Eta, bukatzeko, Mallorcan gaur egun punk-rock edo energiadun rockak duen ordezkari fidelena: Mostros.

<http://www.bonberenea.com>

## Fer Apoa, KKLRD

## «Musika kontsumorako objektu bihurtu da»

Nola jaio zen KKLRD proiektua?

Estricalla eta Humilitate taldeok kontzertu askotan bat egin genuen eta elkarrekin zerbait egitea pentsatu genuen. Gerora Zinc eta Mostros gonbidatu genituen. Baina zerbait falta genuen eta justu Josevisky agertu zen, bere komikiek.

KKLRDren komikiak suntsitutako mundua erakusten du, jendea besterik ez da bertan bizi.

Amets batetik iratzartzean guztia suntsituta eta hutsik aurkitu dugu, bizitzarik gabe. Finantza krisia deritzona beste gerra mota bat da. Gerra ideologikoa, ideia, balore eta askatasun ametsak suntsitu nahi dituen, kapitalismo eta harreman berriak sortzeko.

Oraindik ere punka eta hardcorea dira errebeldiarekin lotuago dauden estiloak?

Jakina, merkatu legeak aginduta, bonbillak bezala saltzen dituzte diskoak eta taldeak, eta Euskadi Gaztea ere hor dagoen arren, punkak eta hardcoreak errebeldiaren eta disidentziaren espresabide izaten jarraitzen dute. Baina ez dira diziplina bakarrik.



Nori zuzenduta dago lan hau?

Nori zuzenduta dagoen ez dugu inoiz aurrez pentsatzen. Gehiago ardura digu zertarako den. Musika kontsumorako objektu bihurtu da, erabili eta botatzekoa. Ez ditugu entzuleak nahi, nahi duguna da jendeak entzutea, pentsatzea eta zerbait egitea; eta baita ondo pasa dezala, musikak eta erritmoak ere askatzen gaituztelako.

Zure eskutatik pasatzen diren lan guztien itxura asko zaintzen duzu.

Egiten duzun horretan sinistu behar duzu, hori da garrantzitsue-

Joseviskyk taldeei egindako erretratuak.

na. Eta detaileak zaindu behar dira. Gaur egun zoriontasuna kopuruarrekin parekatzen da, kopuru eta tamaina handiarekin, jendeak duen hutsunea bete nahian. Baina batzuetan zoriontasuna eta askatasuna gauza txikietan dago.

Nola batu zaizue Bonberenea proiektura?

Aspaldiko laguntasun eta elkarlan harremana daukagu eta lan egiteko modua gustatzen zaigu. Egia esan, besoak zabalik hartu gaituzte. ■





# Ezpalak

JON TORNER

## ‘Soinujolearen semea’ antzezlanaren estreinatuko dute urrian

ATXAGA.ORG



BERNARDO ATXAGAREN *Soinujolearen semea* eleberriaren antzerkirako egokitzapena estreinatuko dute urriaren 18an Bilboko Arriaga antzokian. Patxo Telleria arduratu da nobelaren argumentua antzerkirako egokitzea eta Fernando Bernues aritu da zuzendari lanetan. Arriaga, Donostiako Victoria Eugenia eta Gasteizko Printzipal antzokiak ekoitzi dute antzerki obra, Ttanttaka Teatroa konpainiarekin batera. Parte hartuko duten aktoreen artean Aitor Beltran, Joseba Apaolaza, Patxo Telleria, Mikel Losada, Asier Hernande eta Mireia Gabilondo daude.

## Euskal Herriko pentsamendu kritikoari buruzko graduondokoa

DATORREN URTEAN UEUen ekimenez lau graduondoko berri egingo dira EHUn. Horietako bat *Euskal Herriko pentsamendu kritikoa XX-XXI. mendeetan* izeneko da. Haren helburuetako bat da euskal autore garrantzitsuenen lanak berreskuratzea eta horien gainean hausnarketa sakona sustatzea. Irakasleetako batzuk Joxe Azurmendi, Mario Zubiaga, Imanol Galfaroso, Joseba Gabilondo, Ander Iturriotz, Edu Apodaka eta Julen Zabalo izango dira. Informazio gehiago: <http://bit.ly/LMKVN7>

## Euskal sortzaileen topaketak egingo dira uztailean Azpeitian

AHOTSENEAK antolatuta, Euskal sortzaileen arteko I. topaketak egingo dira uztailearen 2an eta 3an Azpeitian (Gipuzkoa). Ekimenak helburutzat izango du sortzaileek elkar ezagutzea, euskal sorkuntzaren egungo egoera aztertzea eta balizko irtenbideak proposatzea. Izena emateko [info@ahotsenea.net](mailto:info@ahotsenea.net) helbidera mezua bidali behar da. Euskaraz sortzen duen orok parte hartu ahal izango du topaketetan, “hitza agerian erabili zein ez, bere burua euskal sortzailetzat duen edozein pertsona”, diote sustatzaileek: idazleek, musikariek, aktoreek, bertsolariek, zuzendariek, dantzariak, margolariak eta abarrek.

**Gotzon Elortza**, euskarazko lehen dokumentalen egilea, zendu zen pasa den astean. 1950eko hamarkadaren bukaeran eta 1960koaren hasieran grabatu zituen dokumentalak. Lau film labur dira garai hartako lanaren fruitua: *Ereagatik Matxitxakora* (1959), *Aberria* (Erria) (1961), *Elburua Gernika* (1962) eta *Avignon* (1963). Parisen bizi zen film horiek egin zituen garaian, baina Getxon bizi zen azken urteotan. 89 urterekin hil da.

**Kimuak** katalogoa zazpi film laburrek osatuko dute aurtien. Jasotako 66 proposamenetatik honako hauek hautatu ditu epaimahaiak: Mikel Ruedaren *Agua!*; Isabel Hergueraren *Bajo la almohada*; Ander Mendiaren *Beerbug*; Jesús M. Palaciosen *Casa vacía*; Koldo Almandozen *Deus et machina*; Paul Urkijoren *Los monstruos no existen* eta Martín Roseteren *Voice over*. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak eta Euskadiko Filmategiak babestutako egitasmoa da Kimuak. Interneten: [www.kimuak.com](http://www.kimuak.com).

## Victoria Eugenia

Donostiako antzokiak ehun urte beteko ditu uztailearen 20an. Egun horretan Gaujazz jaialdia egingo da antzokian. Ray Gelato & His Giant Orchestra, Josetxo Goia-Arribe eta Terje Rypal izango dira parte hartuko duten artistetako batzuk. Astebete lehenago, uztailearen 13an, *#Victoriaeugenia*, sare soziala izeneko erakusketa zabalduko dute Kutxa Boulevard aretoetan, eta abuztuaren hiria Aste Nagusian murgildurik dagoenean, hainbat ekitaldik gogoratuko dute antzokiaren mendeurrena.



DOLCESTONE.COM

● **Martin Altzueta marrazkilariaren hitzak jaso ditu Euskonews&Media agerkariak:** «Enbalatzeko kaxa bat margotu eta poema bat idazten baldin badiozu gainean, artista deituko dizute. Aldiz, komiki bat sortuz gero, babotzat hartzen zaituzte! Horrela iruditzen zait niri bederen, eta noski norbaiti komikiak egitetik bizi naizela esanez gero, arraro begiratu aurretik, “eta koadroak ere pintatzen ditut” gehitu behar izaten diot esaldiari. Eta izorratzen nauen zerbait da, azken finean nire afiziorik handienak komikiak baitira. Gainera, lan handia eskatzen du, dokumentatu egin behar zara, zirriborroak egin behar dituzu eta abar eta abar. Askotan, koadro bat egitea baino prozesu konplikatuagoa izaten da».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

# Abarrak

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

## 11 Kantatzeko: Ipuin klasikoak bertsoan

GUREAN 3tik 8 urtera artekoek eskatzen dute DVD hau jartzeko. Eta zer arraio, heldu kalakariok pozik, hondoko musika atsegina zaigu bazkalosteko tertulietarako.

Ipuin klasikoak dira gehienak, eta ez hain ezagunak beste batzuk. Hamaika, denera: Hiru txerritxoak, Mari Errauskin, Txanogorritxo, Txori abeslaria, Sant Jordi eta herensugearen kondaira, Zazpi antxumeak, Pinotxo, Oñatiko jentilak, Txixirio txiki, Hamelingo txirularia eta Edurnezuri.

Marrazkiak zoragarriak. Oñatiko Leire Derteanok irudi lezake mundutxo bereko egin dituela pertsonaia denak; oso eskuz egindakoak, umoretsuak, kolore ajatu xarmangarrikoak.

Ez dute marrazki bizidunen abiadurarik. Eta zer nahi duzue esatea, azertu handia iruditu zait. Erritmo pausatu horretan, presarik gabe baina pausak oso ongi neurtuta ditu. Antton Iztuetak, bideoaren muntaia egin duenak, izango zuen horretan parterik. Iztuetak bertsoak ikasteko material oso baliotsua eginga du lehenago ere, Power Pointekin. Nabari da eskarmentua, bertsoen erritmora eta isiluneetara egokitzen baitira marrazkien mugimendu eta elementu berriak.

Begien patxadak belarriei ematen

die aukera, arreta ulerkorragoa ahalbidetuz. Irudiekin batera, entzuten ari garen bertsoak irakurgai ageri dira pantailan, hizki larriz idatzita (mila esker, irakurtzen ikasten ari direnekin akordatzegatik!). DVDak ipuin bakoitzaren karaokea dakar, baina modu normalean egongela karaoke bihurtzen da; bertsoak ikasi ahala ikusleek harro kantatzen dute datorrena.

Oskar Estanga eta Olatz Amozarrainen musikak asko jazten du lana. Ipuin bakoitzeko doinu bat, guztira hamaika, neurritz eta moldez bariatuak. Ahots anitz biltzen dituzten ipuinek (Txanogorritxo tarteko) asko irabazten dute.

Urko Egañaren bertsoerak berea duenez, hizkuntza behartu gabe osatutako bertsoak dira, esaldiak berez-berez doaz, lehen entzunaldian ulertzeko samurrak dira, oso narratiboak. Badu margena bertsoak gehiago korapilatzen. Bertsoak bakarrik ez, hitzaurrean azaltzen duenez, proiektua ere oso berea izan da, seme txikiak akuilatutakoa.

Zur eta lur utzi nauena autokoizpena da. Boskote honek hasi eta buka, eurek egin dute dena. Salmenta ere eurengain dago: 11kantatzeko webgunean aurkituko dituzu salmenta puntuak. ■



**11 Kantatzeko.**

Formatua: DVD-a. Egilea: Urko

Egaña. Lankideak:

Oskar Estanga,

Olatz Amozarrain, Antton Iztueta eta Leire Derteano.

2012an atera-berria. Informazio

osoa: [www.11kantatzeko.com](http://www.11kantatzeko.com)



# AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99  
[aquariumss@aquariumss.com](mailto:aquariumss@aquariumss.com) • [www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)






# Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

## Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

### Dortoka eta barraskiloa

Goiz euritsu batean dortoka lasai zihoan errepide erditik, espaloian paseoan zebiltzanei begira. Bat-batean, zebraidea zeharkatzen ari zen barraskilo batekin egin zuen talka. Dortokak ihes egin zuen, jende artetik.

Barraskiloa zaurituta zegoenez, anbulantzia bati hots egin zioten eta ospitalera eraman. Bertan berehala sartu zuten ebakuntzagelara. Ez zen erraza izan baina medikuek arrakastaz amaitu zuten

ebakuntza. Handik astebetera, barraskiloa jada hobeto sentitzen zenez eta ohean eseri zitekeenez, ertzainak azaldu zitzaizkion. Dortoka batzuen argazkiak erakutsi zizkioten, ea kolpea eman ziona identifikatzen zuen. Banaka-banaka, denak arretaz begiratu ondoren, honelaxe erantzun zien:

—Sentitzen dut baina ezin dizuet segurtasunez esan nor izan zen. Dena hain azkar gertatu zen!

### Soluzioa

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| L | J | P | J | T | A | O | F |   |   |
| J | A | A | B | O | R | E | N | G | O |
| M | U | Z | I | O | I | T | Z | I | A |
| N | A | R | O | T | A | S |   |   |   |
| O | T | U |   |   |   | U | X | G | A |
| B | E | T | B |   |   |   | O | L | A |
| L | E | R | E |   |   | K | L | A | R |
| M | A | T | E | R | I | A | A | R | A |
| T | X | I | N | G | A |   |   |   |   |
| Z | U | E | N | A | R | G | I | T | A |

# Zero Zabor *bloga*



*Hondakinik onena,  
sortzen ez dena*

Hondakinen inguruan Euskal Herrian  
eta munduan sortzen diren informazio,  
dokumentu eta iritzien agertokia.





# Osasuna

JABIER AGIRRE

## Ikusmen ahulduak badu konponbiderik

45 EDO 50 URTETIK AURRERA denok dugu presbisia edo ikusmen ahuldua, maila handiagoan edo txikiagoan. Baina medikuntzaren aurrerape-nei esker gero eta irtenbide hobeak daude arazo hori zuzentzeko.

Espainiako oftalmologoek iaz egin zuten kongresuan iragarri zute-nez, pare bat urtean ikusmen ahuldua zuzentzeko gaur egun erabil-tzen diren laserrak baino askoz ere zehatzagoak lortuko dira, eta horrek teknikaren eraginkortasuna handituko du kasuen %99,9an. Albiste ona da hori, 50 urtetik aurrera guztiok okerrago ikusten hasten garela kontuan hartzen badugu.

### Zergatik gertatzen da?

Ondo ikusteko, objektuak, hizkiak batez ere, urruntzeko premia duzunean, presbiziaren prozesua hasia dela konturatu-ko zara. Urteek aurrera egin ahala, begiko kristalinoa gero eta lodiago bihurtzen da eta elastikotasuna galtzen du; ondorioz, ikusten dugun distantziara egokitu eta moldatzeko gaitasuna galtzen du begiak. Bestela esanda, fokatzeko kostak egiten zaio. Baina zahartzearekin batera agertzen den prozesu horretan urteak ez dira fak-tore eragile bakarrik. Diabetesa eta anemia bezalako trastornoek ere erasaten diote kristalinoaren osasu-nari. Bi gaitz horien aurka preben-tzio egokia eginez gero, presbisia agertzea atzeratu edo prozesuak aurrera egitea saihestuko duzu.

Bestalde, gertuko ikusmena eten-

gabe erabiltzea eskatzen duten jar-dunak (irakurtzen denbora luzea ematea, lanaldi osoa ordenagailua-ren aurrean egitea...) kaltegarriak dira. Egin itzazu atsedenaldiak tarte-ka, begietako tentsioa arintzeko.

### Honela konpontzen da

Metodo tradizionala lenteak erabil-tzea da: lente horiek monofokalak izan daitezke –gertuko ikusteko–,



WWW.ALOHALASERVISION.COM

bifokalak –gertutik irakurtzeko eta urrutira ikusteko, adibidez– edo progresiboak –tarteko ikusmena ere hobetzen dute–. Antiojoez gain, lentilla zuzentzaileak erabili ohi dira.

Gaur egun badira antiojoak eta ukipen-lentillak alde batera uzteko modua ematen duten teknika kirur-gikoak. Kristalino artifiziala edo begi barruko lente multifokala ize-neko teknika, kristalinoa bere fun-tzioak egiten dituen lente batekin ordeztutan datza, garunari kasu

bakoitzean fokatzerik egokiena aukeratu edo hautatzeko modua eskainiz. Teknika horrekin ikusme-naren beste akats batzuk ere kon-pon daitezke, miopia, hipermetro-pia edo astigmatismoa kasu. Teknika sinplea da, 10-15 minutu iraute-n duen ebakuntza kirurgikoa, eta emaitzak oso onak izaten dira behar bezala hautatutako pazienteetan.

### Zein faktorek errazten dute presbisia agertzea?

Adina, begirada gehiegi behar-tzea edo anemia nahiz diabetesa bezalako trastornoek gain, ikusi da badirela presbisia agertzea erraztu dezaketen beste faktore batzuk. Esaterako, elikadura deso-rekatua edo kaloria gutxiko dieta hainbat hilabetez mantentzen badi-ra, ikusmenean akatsak ager daitez-ke. Estres gogorreko aldiek ere tras-tornoa agertzea edo areagotzea ekar dezakete.

### Botika batzuek presbisia bizkortu dezakete

Badira kristalinoaren malgutasuna murrizten duten medikamentuak. Horrelakoak dira antidepressiboak, antihistaminikoak –alergien kontra erabiltzen dira–, diuretikoak –hiper-tentsioaren kontra–, antiespasmodi-koak –zenbait kasutan eztularen kontra–, baita kortikoideak ere –hanturaren kontra oso erabiliak–. Horietakoren bat har-tzen ari bazara galdetu zure medikuari ea dosia egokitzea komenigarria den. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza  
interaktiboa  
www.iametza.com  
T.943 37 67 16

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Sudurretik urrunago

BEREN BIZITZA, besteak beste, usain berezi bat asmatu, sortu eta garatzera ematen dutenak miresgarriak zaizkit. Landareez ari naiz, jakina...

Usaina duten landareek badute, animalion sudurretik, aparteko xarma. Kolorea, eitea, izaera eta forma erakargarri gutxi balitz, usaina. Usaina nonahi: hazian, fruituan, lorean, hostoan, azalean, egurrean... Landare batek hurbiltzea eskatuko digu, beste batek gu uxatzeko bere bizikoak eta bi kino egingo ditu. Gure sudurra baino urrunago ikusten du landareak...

Neuk ere, aspalditxoan, okasioetarako, usain berezia daramat azalean: ez neurea, landare nahasketa xeble baten usaina. Frantzia (Quercy, Touraine...) jaio baina Argentinako Euskal Herrian, Mendozan, garatu eta heldu den mahatsondo, *Vitis vinifera*, bat du oinarri: Malbec aldaera. Haren ardoak, kolore beltz eta tanino artean, fruitu gorrien usainak oroitarazten dizkigu. Tangoaren herriari ez zaio alferrik Malbecaren herria ere deitzen. Frantzia halako hogeitak lur eskaini diote han. Argentinan adina ez baina, auzoko Brasil ere mahats hori lantzen dute. Ardo edontzitik harantzago joan dira sanbaren herrian: lurrin bat eginga dute. Malbec mahatsa sudurrerako soilik. Ardo destilatuta bereizitako alkohola haritzezko barriketan ontzen dute. Frantziar haritzezko barriketan. Ardo alkohola erabiliz sortu den lehen lurrina da. Ardoaren lurrina deitzen diote. Arana, haritza eta banilla lurrin-



BANGIN-CC BY SA

*Vitis vinifera.*

gaiak ditu oinarri eta gizonezkoentzat omen da... Alain de Mourgues ospetsuak sortutako ardo botila itxurako ontzi aproposan datorren Malbec hau Napoleão Bastos lurringileak asmatua da. Eta honela zehazten du: usain familia: zurkara; muinean: musketa, goroldioa, anbara eta benjoia; gorputza: Virginia-ko zedroa, patxulia eta Malbec; abieran: Pertsia-ko lima, andere-mahats beltza, bioleta hostoak, Bergamota udarea, limoia, mandarina, kardamomoa, piperbeltza eta Libanoko zedroaren hostoak.

Nahasketan izango du xarma. Harrapazan/k atzeko hankatik lepoan hori dena daramana... Jendea zerk limurtzen, zerk liluratzen, zerk seduzitzen du gehien: ardoak ala lurrinak? Euskalduna ere bai?



## 55 milioi

*Science* aldizkari ospetsuak 2009an artoaren (*Zea mays*) genomaren segida argitaratu zuen. Artoaren miaketa ez da horretan amaitu, baina. Ez da alferrik munduan gehien egiten den landarea, diru gehien eragiten duena, alegia. Bai, gariak (*Triticum aestivum*) edo arrozak (*Oryza sativa*) baino gehiago.

Miatuz, miatuz, gero eta atzerago topatzen dute etxekotutako artoa. Orain diotenez artoa lantzen dugula 10.000 urte badira. Eta harantzago joan dira *Nature genetics* aldizkarian azaldu berri denez: arto basatitik gaur egungo arto aldaera aukera izugarriainoko bidean, milaka urtetan eta hainbeste tokitan lantzeak, artoak bere genetika aldatzea ekarri du. Aldaketak 55 milioi izan omen dira, mutazio zehatz eta bereziak, hau da teknikoki "nukleotido bakarreko polimorfismoak" deitzen direnak.

Hori hala bada, batez beste, 10.000 urtetan egunero-egunero hamabost bat mutazio genetiko burutu ditu artoak. Ez da nornahi, alajaina!



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

VIVEROS

Fadura

Konifera eta zuhaixken  
produkzioa eta lorezaintza

Mota guztietako  
zuhaitzen salmenta

Larrañazubi bidea, 15 · 48640 **BERANGO** (Bizkaia)  
fadura@hotmail.com · Tel. 618 86 63 41 - 657 79 08 11



# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## Entomologia forensea XIII. mendeko Txinan

HUNAN (TXINA), 1247. Sung T'zu magistratu eta ikertzaile forenseak *Xi Yuan Ji Lu* (Bidegabekeriak zuzentzea) bost liburukiz osatutako bilduma argitaratu zuen. Auzitegiaren epaile lanak egiteaz gain, Sung T'zuk (1186-1249) krimenen gertaleku asko zuzenean aztertu zituen, eta lehenagoko auziei bere esperientzia gehituta osatu zuen medikuntza forenseari buruzko historiako lehen tratatua. Europan, era horretako lehen lana argitaratzeko beste 350 urte baino gehiago egin behar dugu aurrera, Fortunatus Flaelis italiarrak 1602an idatzi baitzuen auzitegiako medikuntzari buruzko hurrengo liburua.

Auzitegi medikuntzaren aitzat jotzen dena alor horren barruko hainbat espezialitatetan ere aitzindari izan zen. Esaterako, kriminalak harrapatzeko intsektu eta bestelako animalien jarduna aztertzea erabilgarria izan zitekeela uste zuen. "Hilabete beroenetan, harrak oraindik ez badira [gorputzaren] bederatzi zuloetan agertu, eta bularraldean, buruko larruazalean, lokietan eta zilborrean agertu badira, gorputz atal horiek kaltetuak daudela esan nahi du", idatzi zuen Sung T'zuk. Eta harrei ez ezik, euliei ere erreparatzen ziela adierazten du bere lanean jasotako kasu batek. "Egun batez nekazari bat hilik agertu



Duela 750 urte baino gehiago Sung T'zu epaile txinatarrak hilketa baten erruduna aurkitu zuen eulien jokabideari erreparatuta.

zen arroz sail batean, eta hala-koetan maiz gertatu ohi denez, inork ez zuen gertatutakoa ikusi". Magistratuak gorpua aztertu zuenean, arma hiltzailea arroza biltzeko erabili ohi zen igitai bat izan zela ondorioztatu zuen. Orduan, herriko nekazari guztiak bildu zituen, eta eskatu zien ilaran jartzeko eta bakoi-tzak aldamenean bere igitaiak lurrian uzteko. Berehala nekazarietako bat jo zuen erruduntzat, "bere igitaiaren inguruan euliak jirabiraka zebiltzalako". Igitai guztiak garbi-garbi zeuden itxuraz, baina Sung T'zuk ederki zekien odola ondo garbitzea oso zaila dela, eta giza ikusmenak antzematen ez dituen arrasto txikiak ere euli haragijaleak erakartzen dituela.

Entomologia forensea auzi batean aplikatzen hurrengo Louis François Etienne Bergeret (1814-1893) mediku frantziarra izan zen, 1855ean, hau da, 500 bat urte geroago. Eta 750 urte igaro ziren, gehienok, *CSI* fikziozko telesaila Gil Grissom esker, intsektuek gaizkileak harrapatzeko balio dutela jakin genuen arte. Baina Sung T'zu izan zen berritzailetzat dugun teknika erabiltzen lehena; luminolik, latexezko eskularrurik, mikroskopiorik eta ordenagailurik gabe, gainera.



## Arrastoak

### Bi "banpiro" aurkitu dituzte Bulgarian



SOZOPOL hirian arkeologo talde batek bi eskeleto aurkitu ditu burdinazko barra banaz zeharkatuta, "berriro banpiro bihurtu zitezen saihesteko", Bulgariako Historia Institutuko zuzendari Bojidar Dimitroven esanetan.

Arrastoek 700 urte inguru dituzte,

baina ustezko odol xurgatzaileen gorpuk egurrezko nahiz burdinazko makilez zulatzeko ohitura XX. mendeko lehen hamarkadara arte iraun zuen, arrastoek diotenez; orain arte horrelako 100 bat eskeleto aurkitu dituzte Bulgarian.

# CAN

## Nola hil kutxa bat kartzelan amaitu gabe

Krimen bat gertatu da Nafarroan. Bertako finantza erakunde sendoena, errotuena, 157 milioi euroren truke hil dute. Apenas bi urtetan, Nafarroako Kutxak bere balioaren %88 galdu du kudeaketa txarraren ondorioz, eta azkenean Caixabank-ek erosi du. Hauek dira hilketaren bost pausoak. Arduradunek libre segitzen dute.

URKO APAOLAZA

NAFARROAK GARAPENERAKO finantza tresna garrantzitsua galdu du; aurrezki kutxako langileek berregituraketa prozesu gogorra jasan beharko dute –Caixabanken arabera mila lanpostu galduko dira talde osoan–; Foru Gobernuak eta Iruñeko Udalak ikusi dute nola desagertu diren euren esku publikoetatik 1.100 milioi euro; gizarte ekintzara 55 milioi euro bideratu zituen CANek 2008an, 2012an 17 milioi besterik ez dira izango... Nola gertatu da *ekonomizidua*?

### Lehen pausoak: Hazi, hazi eta hazi

Enrique Goñi 2000. urtean iritsi zen Nafarroako Kutxara (CAN) Miguel Sanz foru erkidegoko presidentearen eskutik, eta 2002an zuzendari izendatu zuten.

Aurretik CANeko zuzendari ohi Lorenzo Riezu idatzitako txosten kritiko baten arabera, Goñiren hazkunde politikak eraman du CAN egungo egoerara.

Riezuren testua dinamita hutsa da eta funtsean dio CANek momentu okerrean hasi zuela hazkunde paregabea, eta okerreko bidetik gainera.

CANek 2005etik 2008ra hamabi aldiz biderkatu zuen higiezinetan eta bulegoetan egindako gastua, hain justu prezioak gorenean zuzendean. Hau da, sekulako inbertsioa egin zuen, gero etekinik eman



CANeko arduradunek ez dute jazotakoaz inolako azalpenik eman Parlamentuan.

ez baina balioa galdu zuten eraikitzen.

Bestalde, goi karguak ugaritu egin ziren erakundean eta beste askori erretiro baldintza lotsaga-

rriak eskaini zizkieten –gutxienez horrelako 20 kasu daudela dio Riezu, izen abizenik eman gabe–.

Urte horietan irabaziak ez ziren produkzioan oinarritu, CANek



## CANen ardura berezia izan dutenak



**Enrique Goñi**  
CANeko eta Banca Cívica zuzendari izan da. Hondamendiaren erantzule nagusizat dute. 1,2 milioi euroko soldata izan du.



**Miguel Sanz**  
CANeko lehendakari 2010 arte. Administrazio kontseilua "despolitizatu" zuen ardurak sahies-te aldera, baina dietak jasotzen segi zuen.



**Jose A. Asiain**  
CANeko presidente. 150.000 euro kobratzen ditu urtean.



**Alvaro Miranda**  
Administrazio kontseiluko kide. Dietak kobratzea "etikoa" dela uste du.



**Jose L. Sánchez de Muniain**  
Barcinaren eskuin eskua. "CAN pribatua da" esan du.



**Ricardo Marti Fluxa**  
2010ean 56.000 euro jaso zituen batzordeetako dietetan.



**Jose Luis Erro**  
2004tik da CANeko kontseilu ezberdineta-ko kide. 48.500 euro jaso zituen 2010ean.



**Yolanda Barcina**  
Kontrol batzordean egon da urteetan eta ezkutuko batzordeetan ere bai. Ez dakigu zer erabaki hartu dituen, baina milaka euro jaso ditu dietetan.

enpresetan zituen partaidetzak saldu zituen (Auna, Sodena, Planasa, Gesnavarra...) eta diru hori mozkina balitz bezala hartu zuen. Guztira 1.000 milioi eurotik 600 milioi inguru modu horretan lortu zuen erakundeak.

Aldiz, proiektu ez oso fidagarrietako inbertsioa hirukoiztu egin zuen. Aktibo seguruak saldu eta arriskutsuak erosi.

2009an, krisitzarrak harrapatuta zegoenerako, kaudimena %14tik %9ra murriztua zuen kutxak, hau da, eskuan zuen hamar sosetik bat baino ez zen berea. Horrela sartu zioten pozoiz hilgarria.

### Bigarren pausoa: nabarrismo-krisiak jota

Krisia aitzakia hartuta finantza erakundearen fusio prozesua hasi zen 2009ko hondarretan eta horrekin batera aurrezki kutxen pribatizazioa eta banku bihurtzea.

Ekonomia aditua den Juan Mari Arregi kazetariak behin baino gehia-

gotan aipatu izan duen gisan, Nafarroako Kutxak Euskal Herriko finantza sistemaren "zati naturala" behar luke izan; Aurrezki Kutxen Federazio Euskal-Nafarra oinarri hartzea besterik ez dago, talde egonkorra eta kaudimentsua lortzeko.

Botika eskuan izan arren, nahia-go izan zuten ez ematea. CANek Caja Canarias eta Caja Burgosekin egin zuen bat, eta 2010eko martxoan Banca Cívica sortu zuten. Askorentzat irizpide politikoak –ideia nabarristak– lehenetsi ziren erabaki horrekin.

Egoitza soziala Sevillan paratu zuten eta bidaideen finantza egoera ere ez zen uste bezain ona suertatu. Hala, finantza-ingeniaritza harrigarri baten ondoren, 3.900 milioi euroko baliabideak izatetik, 2.400 milioi izatera igaro zen taldea.

2010eko uztailan Europako 91 bankuri estres testak egin zizkieten; horietako zazpik baino ez zuten suspenditu, tartean Banca Cívica. Testaren arabera, banku berriak

1.600 milioi gal zitzakeen krisia areagotuz gero; zati handi bat adreilu hutsa zen.

Beraz, kapitala lortzea hil hala bizikoa zuen Banca Cívica ataka horretatik ateratzeko. AEBetako JC Flowers marrazoak eskaintza egin zion: 450 milioi euro inbertitzea, bankuaren %49 omen zena. Banca Cívica ezetz esan zuen, baina agerian geratu zen bankuaren benetako balioa.

### Hirugarren pausoa: Espainiako Bankuari amen

Ordurako Banca Cívica konpasa galduta zebilen, eta okerreko morroiarengana jo zuen injekzio bila: Espainiako bankuen berregituraketarako funtsari (FROB) 977 milioi euro erregutu zizkion 2011 hasieran. Kopuru hori bost urtean itzuli beharko du bankuak, %7,5eko interesarekin. Inork ez du dirua doan uzten, entzun diegu berriketan Europako handi-mandiei.

Gainera, operazioaren beste aur-

## Bautista Bazterretxeren bila

UPNk eta PSNk, hala nola CANen erantzunkizunak izan dituztenek, behin eta berriz uko egin diote Legebiltzarrean azalpenak emateari eta ikerketa batzorde bat sortzea ere eragotzi dute. Nafarroako Gobernuak dio "kutxa pribatua" dela eta jada ez duela zerikusirik berarekin. Ahaztu zaio esatea Gobernuak buruak CANeko buru ere izan direla urte luzez, eta kontrol batzordeetan eta bestelako batzorde ezkutuetan parte hartu dutela gaur arte, oraindik oso argi ez dauden dieta astronomikoak kobratuz gainera.

"Detalle guztiak ezagutu nahi ditugu" esan dute Kontuz! platafomako bozeramaileek. Bere garaian Urralburu eta Otanoren kontra jardundako elkarte berriz agertu da Nafarroako Kutxaren afera dela-eta. Abokatuak, kazetariak eta finantza adituak bilduko ditu ahalik eta sakonen ikertzeko: batzordeetara joateagatik kobratzen ziren dietak, bileren aktak, batzordeetako kideak, egindako operazioak, deliturik izan ote den... Dirua non dagoen jakin arte ez direla geratuko agindu dute, Nafarroari gurdi-ardatza lapurtu dioten pijoak zein izan diren argitu arte.

pegia ere nozitu zuen: Espainiako Bankuak CajaSol hartzera derrigortu zuen taldea.

CajaSol-ek berankortasun tasa handia zuen eta Cívica taldean sartu zenean FROBek emandako dirutik 500 milioi euro erabili behar izan ziren Andaluziako kutxaren etorkizuneko galerak konpentsatzeko.

Taldean kutxa bat gehiago izateak, CANen erabakitzeak ahalmena ahuldu zuen. Hortik aurrera Enrique Goñik CajaSol-eko Antonio Pulidorekin erdibana eduki zuen presidentzia.

### Laugarren pausoa: Burtsara datu "hipotetikoekin"

Bankiaren eskandaluaren harira gertaera ilun baten berri jakin dugu orain gutxi. Bai Bankiak eta bai Banca Cívica, burtsara irten aurretik ez zituzten euren finantza egoerak ikuskatu, legeak exijitzen duen bezala.

Banca Cívica, Espainiako Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari (CNMV) informazio txostena eman zion eta bertan garbi dio 2008 eta 2009ko datuak "ilustratiboak eta hipotetikoak" direla, urte horietan bankua oraindik sortu gabe zegoelako.

Kapitala hil ala bizi. Banca Cívica burtsara korrika eta pre-

saka irten zen 2011ko uztailean. Akzioak 2,7 euroan saldu zituen estreinakoz —bere balio teorikoaren %60 baino ez—, eta hala ere, geroztik beherantz egin du etengabe; egun 1,4 euro inguruan eros liteke entitatearen akzioa, hau da, bankuak %40 galdu du.

### Bosgarren eta azken pausoa: Goian bego

Hilabeteotan, Banca Cívica lan erreforma baliatu du pertsonaleko "gastuak" murriztuz —150 milioi euro— balantzea berdintzeko, baina 1.248 milioi euro behar zituen Gobernuaren probisio baldintza berriak betetzeko, kapitalaz gain. Ezinezkoa.

Iragan martxoaren 26an eman zuten akordioaren berri Banca Cívica eta CaixaBank-ek. Azkenekoak 1.000 milioi euroren truke erosi du lehena eta CANen jabeek 157 milioi euro jasoko dute.

Maiatzean CANeko administrazio kontseiluak egin duen bileran, erabaki dute CaixaBank-ek Nafarroako finantza entitate historikoa irenstea. CAN banku erraldoiaren %1,4 baino ez da izango eta eragiteko ahalmena ezerezean geratu da.

Azken labankada izan da.

Goian bego. ■



## BESARO LANDA HOTELA



*Iratiko oihanaren  
sarreran*



Tel.: 948 890 350  
[www.besaro.es](http://www.besaro.es)  
[hotel@besaro.es](mailto:hotel@besaro.es)

[www.facebook.com/HotelRuralBesaro](https://www.facebook.com/HotelRuralBesaro)





## Oroimen historikoa

## Gudari ezezagunaren izena

Euren izenak ez dira existitzen, galtzaileen zuloak betiko irentsi ditu. Carlos Iñiguez Garcia ANVko gudaria gerran desagertu zen; ez da hildakoen zerrendetan ageri. Amadorrek begiak malkotan azaldu digu anaiaren heriotza.

TESTUA ETA ARGAZKIA:

AITOR AZURKI

SOLLUBE MENDIA (Bizkaia), 1937ko maiatzaren 6a. Borroka latzak errepublikar eta frankisten artean. Hegazkineria alemaniarrek gudariak bonbardatu ditu. Hildakoak ehunka dira; “Odolaren mendia” deitzen dute. Zurrumbilo horretan, 22 urteko Carlos Iñiguez Garcia ANVko Lehen Batailoiko donostiarrak hil da.

Donostia, 2012ko maiatzaren 6a. “Hau da nire anaia; gaur 75 urte hil zutela”, hasi da esaten Amador Iñiguez argazkia erakutsiz. “Oraindik emozionatu egiten zara, ezta?”, “asko gogoratzen naiz berarekin, oso harreman ona genuen”.

Albistearen berri izan zuenean, Amadorrek 17 urte zituen eta lubakiak egiten ari zen Bizkaiko Arrigorriaga inguruetan. “Hurrengo egunean Atxuriko bere laguntako batek eman zidan albistea. Bilboko Galtzara Nagusia eta Alameda Urkixoren izkinan zegoen ANVren bulegora joan nintzen: ‘Nor zara?’. ‘Anaia’. ‘A zer jipoia eman diguten... Ez dakit ezer gehiago. Gure gizonak sakabanatuta daude hortik; asko ez dira azaldu, baina agian jaitsiko dira...’. Egun horretantxe batailoiak erreleboa jaso zuen. Baina Carlosentzat beranduegi zen jada”.

Badira zerrendetan oraindik azaltzen ez diren izenak. Ez ofizialetan, ezta oroimen historikoa berreskuratzeko taldeek, ikerlariek eta historialariek osaturikoetan ere. Carlos Iñiguez Garcia donostiar gaztearen kasua da. Ez da bere arrastorik



Carlos Iñiguezaren argazkia eskuan du anaia Amadorrek. Erdian, alkandora txuriarekin ageri da.

ageri liburuetan, monumentuetan, omenaldietan... Ez da existitzen.

### “Nik esan nion amari”

Gorpua berreskuratze aldera, ANVren batailoiek Bilboko Begoña auzoko kuartel bilakatu komentura jo zuen ziztu bizian: “Hutsik zegoen, lagun bat edo bi baino ez”. Harrez geroztik desagerturik du anaia: “Carlos ez zen menditik jaitsi, oso gutxi jaitsi ziren, hegazkiniek metrailaturik hil ziren-eta. Nik esan behar izan nion amari”.

Oraindik orain, gure protagonistak iltzaturik du bere anaiarekin joan

nahi izan zueneko eguna: “Sarritan ikusten genuen elkar. ‘Carlos, nik zurekin joan nahi dut frontera!’. ‘Ez. Gurekin jende entxufatu asko etorriko da, baina behean geratuko dira; eta guk gora igo beharko dugu hogeit egunez edo’”. Iragarpen makabro bat bailitzan.

### Donostiara joandako burgostarrak

Gurasoak, Nemesio Iñiguez eta Anunciación Garcia, Burgosetik etorri bikotea ziren. Bost seme-alaba izan zituzten Donostian, tartean Amador eta Carlos. Amara auzoan bizi eta aroztegi batean lan egiten zuten. Gerra hasirik, Donostiako hainbat lekutan izan ziren bi anaiak Errusia Batailoiarekin lanean.

Baina, azkenean, matxinoek Donostia hartu eta Bilbora hanka egin zuten trenez. Carlos ANVko batailoia batean lerrotu zen, eta, Amador, lubakiak egiten hasi. Anaiaren heriotzaren ostean, frankistek Bilbo mendean hartu zuten, baita Amador atxilotu ere. Zigorra: urte mordo langile batailoietan eta soldaduskan. Nolanahi ere, lubakietara igotzeko ezetzari esker, Amadorrek historia hau kontatu ahal izan digu eta anaiaren izena, bederen, jada ez da galduko:

Carlos Iñiguez Garcia.  
Donostia, 1914ko azaroaren 4a – Sollube, 1937ko maiatzaren 6a. Agur eta obore, eusko gudaria. ■



## Frantziako Legebiltzarrerako bozak

## PSk gehiengo osoa lortu du

Hollandek lau egoera aurreikusi zituen: bat, txarrena, eskuinarekin kohabitazioan gobernatzea. Bi, ekologisten eta ezkerreko frontearen sostenguz gobernatzea. Hiru, ekologisten laguntzaz, eta lau: PSk gehiengo osoa erdiestea. Presidenteak Asanblea Nazionalaren berme osoa erdietsi du.

MIKEL ASURMENDI

ABSTENTZIOA oso handia izan da: %44. Lehen itzulian (%42) baino bi puntu gehiago. François Hollande garaile atera da. Bere gobernuak ez du ekologisten ez ezkerreko frontearen laguntza behar Asanblea Nazionaleko lege egitasmoak gauzatzeko. Areago, bere 24 ministroak diputatuak dira.

PSko Ségolène Royale, MoDemeko buru François Bayrou edota Michelle Alliot-Marie (UMP) izan dira galtzailetako batzuk. FNko Marine Le Penek ez du ere diputatu aukia lortu, FNko Gilbert Collard eta Marion Maréchal-Le Penek ordeba bai. FN Frantziako Legebiltzarrerara itzuli da 25 urte ondoren. Asanbleako 577 aukiak honela banatu dira: PSk eta aliatuek 320. Eskuinak eta aliatuek 221. Ekologistek 19. Ezkerreko Fronteak 10. MoDemek eta albokoek 4 eta FNk eta albokoek 3.

### Alaux eta Capdevielle diputatu berriak

Euskal Herriko hiru barrutietako emaitzak hauek dira: 6. hautesbarrutian, PSko Sylviane Alaux garaile izan da, bozen %51,62ekin. Michelle Alliot-Marie (UMP) ministro ohia galtzailea %48,38ekin. PSko Collette Capdevielle nagusitu da 5.ean, bozen %56,47ekin. Jean Grenet (UMP-Alderdi Erradikala) diputatu historikoak kargua galdu du bozen %43,53ekin. 4. barrutian, Jean Lassalle diputatuak (zentroa) segituko du Legebiltzarrean. Bozen %50,98 lortu du. PSko Frantxua Maitia galtzaile izan da %49,02ekin. PS hiru diputatu lortzeko zorian



GAIZKA IROZ

Ipar Euskal Herriko PSko Collette Capdevielle diputatu berria argazkian. Sylviane Alaux ere hautatua izan da, Frantxua Maitia aldiz ez.

izan da Iparraldean, bi lortu ditu alta. Collette Capdevielle eta Sylviane Alaux dira diputatu berriak. Alauxek, itxuraz, Maitiak baina zailago zeukan kargua erdiestea baina erdietsi du. Bestalde, abertzaleek ez dute Maitia galtzailea sostengatu Iparraldeko barnealdean.

Frantziako presidente François Hollandek behar zuen indar korrelazio politikoa eskuratu du. Aldaketa

ekarriko duela aldarrikatu zuen boz kanpaina. Printzipioz estakururik ez dauka bere programa egikaritzeko. Alabaina, Frantziako politika ekonomiko berria, baita Hexagonoko erakundetze berria ere burutuko baditu, ezker anitzaren espirituekin gobernatu beharko luke eskuinaren larderiari muzin eginez. ■





## Kantu-jirak

# Gasteiztik Baionara, kaleak kantuz eta euskaraz

Badira duela urte dezente sortutako kantu taldeak, baina gehienak azken bospasei urtetakoak dira. Gehiago edo gutxiago, hiru ardatz dituzte: kalean kantatzea berreskuratzea, euskal kantagintza kultur ondare gisa zabaltzea eta euskararen erabilera bultzatzea.

## ONINTZA IRURETA AZKUNE

GASTEIZEN, 2009an, Korrika bukatu bezperan abiatu zen Gasteiz Kantuz. Pare bat urte lehenago egin zen lehen ahalegina, baina porrot egin zuen. 2009an, hileko lehenengo larunbatean, 12:00tan, hasi ziren ateratzen, eta euskaldunak, euskaltzaleak, erdaldunak eta abeslariak elkartu ziren. Kandi Anda Euskaraz Bizi elkarteko kide gisa azaldu zen Gasteiz Kantuz sortzeko egin zuten lehen bilerarekin. Plazan euskal kantak abesten ibiltzea zertarako den garbi dauka: “Kalean euskara oso gutxi erabiltzen da Gasteizen eta Gasteiz Kantuzekin lortzen duguna da bi orduz euskaraz bizitzea. Baina egia da betikoarekin ibiltzen garela batzuetan, alegia, ‘gastela-

niaz egiten ez badugu jendea minduko da...’”. Ordea, kaleetako kantaldien ardatz nagusia euskara da, eta gero datoz kantak eta dantzak. Erdaldunak ere hurbiltzen dira kantura, eta euskara jakin ez arren, euskaraz abesteko ahalegina egiten dute. Haiek tartean direnez, komunikazioa zein hizkuntzatan bideratu erabaki behar izaten dute. Adibidez, kalean direla, kantatik kantara zer abestuko duten eta zein orrialdetan dagoen esan behar da. Beste batzuetan azalpen luzeagoak ematen dituzte jende multzoaren aurrean. Batzuetan erdaldunek gaztelaniaz egiteko eskatzen dute. Kandi Andak adierazi digu ahalegin guztia egiten dutela bi orduko tartea euskararen

espazioa izan dadin eta horretarako bide hauek jorratu dituzte: abestia zein orrialdetan dagoen euskaraz esaten dute, eta behar izanez gero, hatzez adierazi. Azalpen luzeak euskaraz ematen dituzte, eta eskatuz gero, laburpena gaztelaniaz. 200 e-posta dituzte, bi zerrendetan banatuta. Euskaldu-



GASTEIZ KANTUZ-EK UTZIA

Behean, ezkerrean, Lizarran Kantuz herriko jaietan. Behean eskuinean, Gasteiz Kantuzeko taldea. Aldamenean, Baionan Kantuzeko CD baten azala. Baionan Kantuzek 15 urte egin ditu aurretik eta aitzindariak dira.



LIZARRAN KANTUZ-EK UTZIA



BAIONAN KANTUZ-EK UTZIA

## Baionan Kantuz, aitzindaria

Aurten 15 urte egin dituzte, itxura guztien arabera haiek izan ziren euskal kantuak talde gisa kalean abesten lehenengoak. Baionako Ikastolako guraso batzuk hasi ziren kantari, bi helburu zituztela: euskal kantuak zabaltzea eta ikastolarentzako dirua ateratzea. Baionan Kantuz izeneko elkarte sortua dute. Hilero laugarren larunbatean 11:00etan elkartzen dira merkatuan eta han egiten dute saio osoa. 50 urtetik gorako jendea biltzen da eta gehienek ez dakite euskaraz. Patrich Franchessena elkartearen sortzaile eta kideak adierazi duenez, "partaide gehienak ez dira abertzale eta euskaltzale gogorrak, ez dakite euskaraz. Dena dela, maite dute

euskara". Erdaldunek entseguak eskatzen dituzte, baina elkarteak ezin du halako lanik hartu. Hala ere, Baionan badira euskal kantuak irakasteko ikastaroak.

Gazteak nola ez diren animatzen galdetu diogu Frantsesenari eta ordutegia aipatu digu. Larunbat goiza ez da nonbait egokiena gazteak inguratzeke. Aldiz, Baionako jaietan ere kalera ateratzen dira kantatzera eta arratseko 20:00etan izaten denez gazte andana gerturatzen da. Jaiak aipatu ditugu, baina horrez gain hainbat estatutatik eta herritatik deitzen diete kantatzera joateko.

Bost CD argitaratuak dituzte ikastolaren alde diru pixka bat biltzeko.

nek euskaraz jasotzen dute informazioa eta erdaldunek euskaraz eta gaztelaniaz.

### Azpiegitura txikikoa

Ez dute beste munduko azpiegitararik behar kantaldiek. Gasteizkoek hiru oinarri baino ez dituzte behar hileroko saiorako: tokia, entseguak eta kantutegia. Gorbeia bodegoian geratzen dira hileroko eta kalez kale ibiltzen dira alde zaharreen. Azoka eguna aukeratu zuten propio. Entseguak hilean bitan egiten dituzte eta 168 kantako kantutegia daukate. 3.000 ale atera zituzten eta agortuta dago. Bigarren edizioa egitekotan dira, abesti berriak sartuta. Ez dute diru-laguntza finkorik, ez baitute elkarte izaera hartu. Kantekin grabatutako mp3 formatuko CDa daukate eta bi egiteko ditu; batetik, 3 eurotan salduta diru pixka bat biltzea, eta bestetik, kantariak etxean abestiak ikasteko eta errepa-satzeko aukera izatea. Larunbateko

saioek ukitu exotikoa ere hartzen dute. Turistak begira geratzen dira, eta CDa eskatu ere egiten dute. Eskatzen lehenak diren katalan eta madrildarrei erosteko esaten diete, laguntze aldera.

Gasteiztarrek ez dute inolako baldintzarik bete behar kantuan aitzeko. Gutxi-asko ehun kantuzale elkartzen dira hileroko eta tartean behin, indarberritzeko asmoz, inguruko kantu-jiratar joaten dira, hala nola, Baionara, Donostiara, Gernikara, Otxandiora eta Iruñeko San Ferminetara.

### Lizarran ere kantuz

2007an, Lizarran Garean Euskaldunon Elkarte aurkeztu zutenean, hamaiketakoaren ondoren, bi musika adierazpen kalean zehar ibili ziren: batukada eta Lizarran Kantuz. Bigarrena, elkartearen helburuak (euskaraz bizitzea) lortzeko ekintza interesgarria izan zitekeela pentsatu zuten. Lizarrako jaietan

errepikatu zuten esperientzia eta arrakasta izan zuela ikusita, 2007ko irailetik aurrera hilero azkeneko larunbatean ateratzea erabaki zuten. Luisfer Etxeberria Gareaneko bazkidea da, sortzetik Lizarran Kantuzen dabil, eta arrakastaren gakoa bere ustez zein den azaldu digu: "Euskaltzaleak datoz kantatzera, noski, baina nolabaiteko balore sozialak bilatzen dituenak begi onez hartu gaitu. Lizarra erdi-erdian egiten dugu, kalean jende asko dabilen orduan eta modu naturalean. Jendeari gustatu egin zaio". Horrek esan nahi du euskaraz ez dakien jendea ere gerturatzen dela. Hizkuntza kudeaketa egiteko orduan gauzak garbi dituzte: "Oso gardena gara, hasieratik adierazi dugu gure helburua euskaraz bizitzea dela, eta beraz, jendearekiko komunikazio guztia euskaraz egiten dugu".

Garean Euskaldunon Elkarteak hainbat alorretan egiten du lan, hala nola, umeen aisialdia, mintzalaguna, irratia saioa, aldizkaria eta helduentzako ekimenak. Horietako hanka bat da Lizarran Kantuz. Eskola esparrutik kanpo zegoen hutsunea betetzea zuten gogoan kanta saioak antolatzerakoan.

Euskara dute ardatz, baina ondo kantatzea gustatzen zaie. Horregatik, bi esaldi idatzita dituzte kantutegian. Josanton Artzerenak honela dio: "Kantua kantu denean kantaria ez da ikusten, kantuak du ezkutatzen". Oskorriri berriz, beste hau hartu diote: "Euripear kantari, *I'm singing in the rain*, edozein egoeratan, dela afari dela txango dela lagunarteko parranda, lasai desafinatzeke". Hots, denok dugu gustuko ondo abestea eta areago gure kulturaren ordezkari bagara. Era berean, Garean elkartekoena nahia da edozein herritar kantu taldera gerturatzea. ■



Babeslea: Getxoko Udala



**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO  
Euskaraz Zorritzen

## Zabaltu euskararen atea

**%50** edo **%30** eko deskontua  
establezimenduen errotoak, olanak eta  
ibilgailu komertzialak euskaraz jartzen badituzu.

**%10** edo **%5** eko deskontu gehigarria

Getxoko enpresa hauetan eskatzean: TOLDOS Y PERSIANAS MURGUIA, RÓTULOS PUBLIARTE, CIANOPLAN, ULI ARTE PERSIANAS, LA REPRO, KALKO, KISER, AMETS eta RÓTULOS ARRILUCE.



**9E+1**  
EUSKARA BIZI  
94 415 22 52  
getxo@getxo.net



## Topaguneak 'Zergatik ez?' saioa antolatu du

TOPAGUNEAK hamabi euskara elkar-terekin batera euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzeko saioak antolatuko ditu. Kataluniako Tallers per la Llengua diseinatu-ko Taller per al foment des Usos Interpersonales en Llengua Catalana tailerrean oinarrituta daude. Ondoko galderari erantzuten ahale-ginduko dira: *Zergatik ez kokatu eus-kara guztion elkargunerako, komunika-ziorako hizkuntza gisa?* Saioetan hizkuntzaren alde egiteko argudioak landuko dira. Bi ordu eta erdiko

saioan hizkuntza aniztasuna, legez-ko markoa, norberaren ibilbidea, hizkuntza erabiltzeko zailtasunak identifikatu eta gerorako proposa-menak aztertuko dira. Euskara eza-gutu, baina erabilera guneak irabaz-teko dituen hiztunarentzat dira tailerrak. Besteak beste, hizkuntze-kiko duten harremanaz hausnartu nahi duten herritarrei, nortasuna eta identitatea definitzen ari den nerabe eta gazteari eta hizkuntza joeren eredu izaten diren irakasle, begirale, haurtzain eta gurasoei, eta udaletako zein beste erakunde publikoetako langileei bideratua dago.

Tailerrak antolatuko dituzten eus-

kara elkarteak hauek dira: AED eta Txatxilipurdi (Arrasate), Bagera (Donostia), Berbaro (Durango), Bizarra Lepoan (Getxo), Elgoibarko izarra (Elgoibar), Irun Iruten (Irun), Jardun (Bergara), Karrikaluze (Atarrabia), Loramendi (Eskoriatza), Pil-pilean (Soraluze) eta Zuhatza (Deba).

## Kurduera hautazko Turkiako eskoletan

KURDUEK aukera izango dute hemendik aurrera kurduera ikasteko Turkiako ikastetxeetan. Hala adierazi du Recep Tayyip Erdogan Turkiako lehen ministroak. Hala ere, ez dute kurduera ardatz duten ikastetxeak abian jartzeko aukera izango, gehie-nez ere, gutxieneko ikasle kopuruak eskatuz gero kurduera ikasgai gisa izango dute ikasleek. Hego Euskal Herriko A ereduaren antzeko zer-bait. Erabakiak beste mundukoa ez badirudi ere, Turkiako kurduentzat bada zerbait, hizkuntzaren eta kultu-raren zapalketa gogorrera ohituta baitaude. Unibertsitatean badaukate kurduera irakasteko aukera, baina gainerakoan jazarpena handia da. Esate baterako, jendaurrean kurdue-raz hitz egiten duten kargu politiko-ak jazarri egiten dituzte.

Europar Batasunak behin baino gehiagotan eskatu dio Turkiako Gobernuari gutxiengoaren eskubi-deak urratzen dituzten legeak alda-tzeko. Kurduak %20 dira Turkian.

## Euskaldunon Biltokik hamar urte

IRUÑEKO TXANTREA AUZOKO elkar-tea da Euskaldunon Biltoki eta ekai-naren 30ean hamargarren urteurrena ospatuko dute. Egun osoko egitaraua antolatu dute Ezkaba Plazan.

Elkarteak mota askotako ekintzak prestatu ditu hamarkada honetan euskararen sustapena lantzeko, hala nola, musika emanaldiak, hitzaldiak, bertso eskola, irakurle taldeak eta antzerkia. 2012. urterako, bitan banatzen diren bi lelo aukeratu ditu elkarteak: Trans(misioa) eta Trans(formazioa).



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:  
[www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## TALAIAN

### Nork erreskatatutako ditu herritarrak?

Espainiako bankuen erreskatearen eztabaidan murgilduta gaude; Euro-par Batasuneko eta Nazioarteko Diru Funtseko 100.000 milioi euro era-bili nahi dira horretarako. Erreskatea ez da doan izango. Diru hori uzten dutenek, dirua itzultzeaz gain, interesak ere eskatzen baitituzte. Era berean, murrizketa sozial gehiago eskatu dituzte, herritarrek ordaindu beharrekoak, "mailegua" kobratuko dutela bermatzeko. Administrazioek, Euskal Herrikoek barne, enpresa handiak ere erreskatatzen dituzte, ordaindu beharreko zergak murriztuz eta kenkari gehiago eskainiz. Iber-drolarekin horixe egin dute. Ez da lehenengoa, ezta azkena izango ere. Bankuek, aurrezki kutxek —haien kudeatzaileek kiebrara eramanak, kasu batzuetan—, baita enpresa handiek ere, "erreskateez" gozatu dezakete.

Nork erreskatatuko ditu herritarrak? Zeinek erreskatatuko du langabe-zian dagoen gazteriaren %50a? Zeinek erreskatatuko ditu huskeria bate-kin bizi diren milaka jubilatuak? Zeinek erreskatatuko ditu menpekotasu-na duten pertsonak, askotan familiaren sakrifizioari esker bizi badira? Pobreziaren mailaren azpitik bizi direnak zeinek erreskatatuko ditu? Sis-tema kapitalistarengandik langabezia, pobrezia, indibidualismoa, bere-koikeria, eta injustizia baino ez dugu espero behar. Beharrezkoa da beste sistema justu, solidario eta alternatibo bat, herri bakoitzaren langileriak eta herri-klaseek sortutakoa. Jakina da Frantzia eta Espainia, euren poli-tika ekonomikoekin, Euskal Herria zamatzen ari direla. Besteak beste, euskal banku publiko bat behar dugu, inbertsioa sektore estrategikoeta-ra bideratuko duena, enplegua eta ongizate estatua segur-tatzeko. Kutxabank ez doa norabide horretan. Gure ongiza-tea eta subiranotasuna errespetatzen dituztenek baino ez gaituzte erreskatatuko euskal herritarrok.

Juan Mari Arregi




## EAJren erabakia

**HONDAKINEN** gaia ardatz hartuta sei hilabeteko hausnarketa epea zabaldu zuten Bilduk eta EAJk 2012ko lehenengo sei hilekorako eta epea hilaren hondarrean bukatzen da. Errauskailua tartean, ez da akordiorik izan eta gaia Martin Garitano higatzeko baliatu izan du oposizioak, bai herritar askoren laguntzarekin eta baita sostengu mediatiko esanguratsuekin.

Errauskailua edo atez atekoa, hori da ika-mikaren muina gipuzkoarren begietara. Eta bai, hondakinen gaiari heltzeko bi ikur nagusiak dira lurraldean, baina eztabaida hori baino askoz aberatsagoa da eta Bilduren aurkako jarrera gogorak ez du berau lasaitasunez gauzatzen utzi. Pena da alderdietako lehia politikoak gaiaren eztabaida zabal eta aurreiritzi gabekoa zanpatu izana. Orain, bakoitzak bere indar eta interesekin erabaki beharko du.

Eta zer erabakiko du EAJk? Garitanoren aurkako zentsura mozioa onartu, PPK eta PSE-EEK eskatzen dioten moduan, eta Diputazioa hartu? Edo jarraituko du gaiarekin Diputazioaren zutoinak astintzen, honek bere jardun osoan eragingo duelakoan? Hilabete gutxira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak ez balira, errazago hautatuko zukeen, baina hauek ate joka, Gipuzkoan PSOEren eta PPren eskutik abiatzea arriskutsua izan daiteke jeltzaleentzat.

Markel Olanoren berbei jaramon eginda, ezin da ezer baztertu, behintzat *Berrian* Garitanori egin ahal zaion zentsura mozioaz esandakoak ikusita: "Behartuta baino ez nuke egingo. Baina Bilduren eskuetan dago hori". Jakina, ez berak nahiko lukeelako, Bilduk behartuta baizik. Zentsura mozioaren atea, beraz, zabalik da, kontua



da herritarrak ulertuko ote lukeen hondakinen gaia bakarrik nahikoa izan daitekeen halakorik egiteko, edo ez. Kontua da, PSEekin harreman estua eskatuko liokeela horrek, eta nola interpretatuko litzatekeen lotura hori Eusko Legebiltzarrerako datozen hauteskundeetako lehia estuan.

Zentsura mozioaren bidea baztertuz gero, oso posible da EAJk San Marko mankomunitatearen aginte organoen aldaketa behartzea eta horrekin Bildu are eta gehiago inguratzea. Baina Diputazioak bereari eusten badio, azkenean instituzio talka emango litzateke —ematen ari da Batzar Nagusi eta Partzuergoaren artean— eta Batzar Nagusiek erabaki beharko lukete zer egin, Diputazioa nork gobernatuko duen azken erabakia berea da eta.

Bilduren posizioa ere ez da samurra, baina aurreikusitakoa da, funtsean gutxiengotik ari delako gobernatzen eta, gainera, gai askotan beste alderdiek dituzten posizio oso desberdinetatik. Iritzi korrante baten aburuz, Bildu hondakinen gaian ito liteke, eta uste da ez duela gaia kudeatzen jakin; azken finean, erraustegi txiki bat onartu izan balu, oposizioak ere askoz malguago jokatu zuela atez atekoarekin, Gipuzkoako herri askotarako balio dezakeelakoan.

Bilduren baitan ere, badira agian erraustegi txiki bat onartu beharko

litzatekeela pentsatzen dutenak. Ezker abertzalearen barruan, batzuek Gipuzkoako Bildu gaiarekin gehiegi tematu dela uste duten moduan; eta euskal kulturaren ere, badira gisako oihartzunak, Bilduk dirua hondakinetarako bakarrik ote duen kexua zabalduz.

Bilduk, aldiz, badirudi argi duela bere posizioa eta bereari eutsiko bide dio:

hauteskundearen aurretik ere gai zalapartatsua izanik, bere hauteskunde programan argi adierazi zuen egitasmoa gauzatzen ari da, hori bekatu balitz moduan. Herritarrak hain daude ohituak agintariak hauteskunde kanpainan zerbait agindu eta gero ez betetzera, egiten denean —kasu honetan Bilduk— jarrera itxi eta inmobilitista gisa saltzen dela. Edozein kasutan, Bilduren gobernuaren legimititate demokratikoa da zalantzan jarri ezin dena, Garitano Batzar Nagusien bozketatik atera zen Ahalduen Nagusi eta haiek kargugabetu dezakete, oposizioak horretarako adostasunik biltzen badu. Arrisku horrekin ari da Bildu, eta gertatzen bada, joko demokratikoaren parte gisa onartu beharko du.

**NAFARROAKO GOBERNUAN** ekaitza iragan da jada, eta UPNk gutxiengoan gobernatu beharko du PPren sostenguekin. Ez dute arazo handirik izango, oposizioak bere egoera gogorazaraziko dio noizean behin UPNri, baina ez dirudi alternatibarik eratuko denik. Gobernuaren diru kontuak argitzea izango da orain oposizioaren lehentasunetako. Edonola ere, hertsura garaiotan, gobernuan oposizioan baino hotz handiagoa egiten duela dirudi.





# Baserriaz akordatu diren greziarren pozak eta zalantzak

Atenas hiriburuak biztanleen %3 galdu omen du. Greziako nekazarien kopurua 2010etik %7 handitu dela diote kooperatibek. Milioi eta erdi greziar zalantzan daude baserrira itzuli ala ez. Lurrarekiko eta eguneroko elikadurarekiko harremana arras aldatu da krisiarekin. Baina laborantzara doazenek irautea konplikatu daukate.

GREZIARREN SOLDATEK hondoa jo dute krisiaren ondorioz herrialdea Europako hartzekodun handien mende geratu denetik, batek irabazien %20 galdu du, besteak %30, edo %50. Erretiroak %20an murriztu dira. Osasun zerbitzuetan mozketa izugarriak. Langabezia tasak kontrolik gabe. 40.000 herriar gehiago aterperik gabe. Laguntzazko milioi bat otordu zerbitzatzen dira egunero kaleetan.

Aurreko hamarkadan Argentinan eta beste askotan ikusitako irudiak errepikatzen dira Grezian, Europaren sehaskan, herio larrian jendeak karrikan bere haserrea erakustez gain bizirauteko kementa antolatzen duela erakusten dutenak. Hamaika kronikatan zabaldu dira gurean hango ekonomia paraleloaren istorioak, diru lokalak direla, trukeak, auzolanak, lantokien okupazioak edo hirietako baratzeak.

Estatuak zerbitzu asko gogor kimatu dituenaz, jende askoren osasuna bermatzeko ez dago mediku eta erizain boluntarioen bidea besterik. Arazo ekonomikoek gorputzak eta buruak hondatu dituzte, elikadura txarragotu, kalte psikologikoak eragin... Suizidioak ugaritu dira, tarteka telebistak erakusten dituen kasu deigarrienetatik askoz harago. Krisiaren uhinak familia guztietara iritsi ahala, boluntarioz

osatutako osasun zerbitzuetara etorkinak baino askoz gehiago greziar jatorrak datoz.

Aipatzen den beste joera karrikatik baserrirako itzulera berriarena da. Gaia Roxanne Mitrallasek jorratu du Confederation Paysanne sindikatu frantziarrak plazaratzen duen *Campagnes Solidaires* aldizkariaren maiztzeiko zenbakian; Euskal Herrian ELBren *Laborari* astekari beti interesgarriak ezagutarazi du: *Avec la crise, les Grecs retournent à la terre*.

XXI. mendeko krisitzarrak hondamendira eramanez dituzte milaka familia, negozio txikiren bat edo enplegua zeukan asko esku hutsik da gaur, eta oraindik dena galdu ez duena ohartu da dendaz denda ibiltzea, atzerriara bidaiatzea, baita autoz mugitzea bera ere baino lehenagokoak badirela: eguneroko otorduk.

Kaletar askok dirurik ez jakia erosteko eta baserritarrek jeneroa saldu ezin, uza oso ona izatea bera zigor. Urte hasiera honetan Pieria hiriko elkarte batean hasi ziren zuzeneko salmenta Internet bidez mugiarazten. Patatak 0,25 eurotan jarrita, aurretik 0,10 eskuratu ezin zuen laboraria ondo eta supermerkatuan 0,70 eskatzen zioten kaletar pobretua ere bai.

Mitrallasek dioenez, “mugimendua beste produktuetara zabaldu

*Patras Democracy* blogeko argazkia topatu dugu Interneteko bilatzailean grekeraz ipinita “patata iraultza”: Patras hiriko biztanleak baserritarrek trailerrez ekarritako lursagarriak ari dira erosten. Bitartekaririk gabe, bestela saldu ezin edo kasik harrika botatzeko prezioan eman behar dituzten nekazariak jornal duin bat eskuratzen dute; kaletarrek, berriz, komertzioan daukatena baino askoz merkeago eskuratzen. Gerra, krisi eta ezintasun garaietako janaria da beti patata xumea. Hondamendi ekonomikoaren erdian, trukea eta zuzeneko salmenta alternatiboak ugaritu dira. Estatuak eskaini ezin dituen zerbitzu asko bolondresek eman behar dituzte. Argazkilariak kameraren azpialdean erakusten du gaiarekin lotutako panfleto bat, zeinaren tituluko lehen hitza grekeraz irakurtzen baita: *Autoorganose*.

da: lekaleak, fruituak, olioak, ardoa, gazta, okela eta baita arraina ere. Gero eta gehiago inplikatu dituzte udalak, eta elkarteekiko elkarlan hau hiri handietara ari da iristen. Supermerkatu handien sareari alternatiba ari zaio antolatzen”.

Baina herritarren lurrarekiko interes berria jakia eskuratu beharretik harantzago doa. Hirietan ugaritu dira baratzeak, bai partikularrak eta bai auzolanean landuak. Gerra eta krisi handietako joera da hori ere. Gobernuak sustatu izan dute, Britainia Handiko eta AEBetako gobernuak 1940tik antolatutako *Victory Garden* eta *Digg for Victory* mugimenduak bezala.

Grezian ere, antza, gobernuak eta udalek erraztasunak eskaintzen dizkiete lurra landu nahi dutenei, baina jendeak batik bat familia arteko sareetan oinarritzen dira.

## Itzuleraren zalantzak

Grezian lurrera itzultzeko mugimendua nola gertatzen den ulertzeko gako batzuk Nicholas Bellek eman ditu *Le Monde Diplomatique*ko blogean: *Dans la Grèce rurale, la révolution des jardins*. Nekazarien giroa ondo ezagutzen dutenak elkarriketatu ditu, berriketan hango Parneستي herri txikian Panagiotis eta Sonia Sainatoudisek sortutako hazien sareak burutu duen bilera-



ren aitzakian aste pare baterako joanik.

Greziako lurra aski ondo banatuak ei daude hein batean 1453tik 1828era arte Turkiaren mende egon izanaren ondorioz. Sultan otomandarrak bereak zituen lurra oro, baserritar guztiak maizter ziren, sultanak ez zuen maite lurjabe handien konkurrentziarik. Horrexegatik dago basoen %95 ere Estatuaren eskuetan gaur arte.

1922an Turkia eta Grezia berriek etnia bateko eta besteko herritar ordura arte nahasiak bereizi zituzte-nean, milioi eta erdi greziar heldu ziren herrialdera, honek eraginez lurraren erreforma. Laster helduko zen gerra eta 1940tik 1949a hondamendia: inbaditzaile naziek mendial-

deetan 2.000 biztanle baino gehiagoko herri guztiak suntsitu zittuzten, horrekin batera askapen gerra, eta 1945tik 1949ra gerra zibila.

Baina hirira jaitsi berriak izaki, Greziako kaletar guztiek dauzkate senitartekoak sorterrian. Nork berera jotzen du festa eta bestelako ospakizunetan. Atzerrira urrundutakoek ere atxikitzen dute lotura. Azken urteotan lurrera itzuli diren 50.000 jendeek sare horren babesean egin dute.

Dimitris Goussiosek geografia irakasten du Thesariako unibertsitatean. Kazetariari aipatu dio Ellinopyrgos herrixkakoa. Ehun lagun bizi dira bertan, gehienak zaharrak. Baina Australian, Alemanian, Estatu Batuetan eta Atenasen daukan

diasporak 2.500 *ellinopyrgostar* biltzen ditu 6 elkartetan. Bertan erroak dituzten gazte batzuk baitzeuden etxaldeetan instalatzeko gogoz, Goussiosen departamenduak lagunduta Internet eta satellite bidez egin dute biltzarra. Nekazari berriek beren produktuak saltzeko beharko duten sarea hortixe antolatuko da.

Zertarako joan baserrira? Nicholas Belli kontatu dio batek: “Ez nator diru bila. Atenasen lanean arituta 400 edo 500 euro irabaziko ditut, esklabo bainintz. Hemen berdin irabaztera iristen banaiz, gainera askatasuna aurkitu dut”.

Goussios irakasleak dioenez, hiru hamarkadatan hiperkontsumismoan bizi izan ondoren, asko hasi dira balorea aitortzen pobrego zirenean zeukaten elkarlanari. “Solidaritatea, elkarrekikotasuna, ematea, guzti hori ari gara berrikusten. Grezian oraindik geratzen ziren jendearen memorian, ez da Frantzia bezala, han XIX. mendean hustu baitziren baserriak”.


Baina soroan sartzea bat da eta hartatik biziz irautea bestea. Roxanne Mitrallas egon da Via Campesinako nekazari greziarrekin eta hauek kezkatuta daude ikusiz hasiberrietako askok porrot egin deza-keela.

Nork heziko ditu nekazari berriak eta zertarako? Nola hornitu hiri handiak, antolatu laborarien elkarlana, kontsumitzaileekiko harremana? Horretan asmatzen ez bada, milaka baserritar berri aurkituko dira aurreko beste asko aurkitu diren atakan hesituta. ■



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua  
Kalitatea  
Garantia





## Urrutiko sagarrak hamalau...

B

azen, ez aspaldi, urtero sagar uzta oparoa jasotzen zuen jaun bat. Egundoko mauka zeukan sagasti hari esker! Bere bezeroak zorioneko ziren zapore, usain eta itxura hain zoragarriko sagar ale bikain haiekin. Sagarren ospea hedatu ahala, gero eta bezero gehiago zuen jaun hark, eta denak ase asmoz, auzotar batek gomendatutako ongarria nahastu zion sagastiko lurrari: tentuz eta xamurki zopizartu aurrena, hondeatu, oxigenatzeko denbora utzi eta ongarria lurrari nahasturik, dena prest utzi zuen.

Uzta bildu orduko konturatu zen Jauna, urte hartan, zerbait bazela ezohikoa bere sagar aleetan. Biltegian xomorroak agertu ziren eta ale ustelak ugaltzen zihoazen. Horregatik, ahalik eta azkarren saldu eta irabaziak ziurtatzea erabaki zuen. Aisa lortu zuen! Puntako prezioan hartu zizkion erostun talde batek.

Erostun berriak ere laster konturatu ziren, itxura aparteko sagar haiek eta inguruko denak usteltzen hasi zirela. Zer egin? Denak pila handian erabat nahasturik zeuden; ezinezkoa zen banaka-banaka banantzea, hainbeste tona...

Ia neuronak eta euronak agortu arte pentsatzen aritu ondoren, urruntxoagoko herrietako sagarrekin batera pilatzea zatekeela hoberena pentsatu zuten, bestela uzta osorik galtzeak egundoko porrota zekarkielako... Baina beste herrietakoekin batzean, orduan eta azkarra go hasi ziren denak usteltzen. Bazirudien xomorroz eta xixarez egindakoak zirela haien barrunbeak...

Irtenbide bila egun dezente gautu eta gero, azkenean, euren sagar pila erraldoia beste estatu bateko patata ekoizleen uztarekin batzea adostu zuten. Sagarra eta lursagarra ongi konpon zitezkeen.

Noski, sagar jabeen artean osaturiko komisio batek egundokoak eta bi egin behar izan zituen patata ekoizle fidakaitz haiek beren nahietara lotu zitezen. Baina,



DANI BLANCO

azkenean, hain irtenbide ona eta negozio hobe xamurki eta marketin bitarteko modernoenez begien aurrean jarri zitekeen, liluratuta, aho zabalik, balizko aberastasunaren kitzikadurak sortu lerdea lehertzeko mukizapia eskuetan... Bai! Esan zuten denek batera.

Usteltzeak baina, mugarik gabeko neurriak eta abiadura hartu zituen. Gero eta gehiagok zeukaten ustela eskuartean. Orduan otu zitzaien, bazirela bada euren aldean irabazi apalak baina ziurrak lortzen zituzten ekoizleak eta, gainera, haien produktua, zalantzarik gabe, askoz hobeto babesturik zegoen ustelari aurre egiteko! Geruza geruzaren gainean, kipulak ez zion ustelari zirrikiturik utziko eta han amaituko zen egoera nardagarri hura.

Txalo zaparrada luuuzte batez amaitu zen akordioa; cavarik garestienaz egin zuten topa! Haren aparrak eta lurrinak mendean hartu zuen ipar haizeak kontinentearen beste puntatik zekarren ustel jarioa. Baina, ez zuen askorik iraun gure ekoizleen usain berriak. Topak, berehala egin zuen topo, aspal-ditxoan hain hurbileko zuten kiratsarekin. Oraingoan gainera, gas negar eragile baten efektu bera izan zuen: denak hasi ziren kipula saldustel (saldu nahiz salda ustel) lurrinarekin negarrez. Ez zekiten zerk eragiten zien malko jario hura baina, denak ari ziren kontu bera gai eta ardatz zuten harekin elkarrizketa amaiezinetan. Hobeto esan hitz-aspertuetan!


Eta honela, ustel usainak putreak legez, politikoak hurbildu zitzaizkien dena konpontzera... Inork dirua bikoiztu nahi bazuen, mugitzeko, zioen sermoian, bele abadeak ere... Horrelaxe sortu zuten Europako Bankual!

P. S. Olerki amandreak, bat-batean, schaska kulunken erritmo eta neurriz, ilobak lokartzeko erditutako ipuina! ■



ASTE HONETAKO

# zozketa




## Besaro Landa Hotela

Bi gau  
bi lagunentzat

Iratiko oihanaren sarreran  
Irigoien, 5  
Itzaltzu NAFARROA

[www.besaro.es](http://www.besaro.es)

1



## Iruñeko Planetarioa

3 harpidedunentzat  
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g  
Iruñea NAFARROA

[www.planetario.org](http://www.planetario.org)

2



## Inguru Abentura

Eskalada (I. maila)  
3 harpideentzako bina sarrera

San Juan kalea, 18  
Albeniz ARABA

[www.inguruabentura.com](http://www.inguruabentura.com)

3



## Bakea gudan Joxe Azurmendi

5 liburu opari

[www.txalaparta.com](http://www.txalaparta.com)

4



## Gartxot

2 liburu opari

[www.argia.com](http://www.argia.com)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2326. Argia)

### Kafe Antzokia

- Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)

### Eureka!

- Erramon Egurrola Zabala (Aulesti)
- Imanol Irigoien Aranberri (Oiartzun)

### Nafarroa Bizirik

- Juan Manuel Zaldua Oruezabal (Tolosa)
- Eneko Gorri -  
Mairie De Biarritz Herriko Taberna (Biarritz)
- Maialen Carpintero Navarro (Eraso)
- Iñaki Goñi Irazusta (Donostia)
- Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)
- Miguel Uriarte Ballarena (Barañain)

### Euskal Eskola

- Asier Alvarez De Eulate Mujika (Ordizia)
- Imanol Alvarez Gartzia (Bilbo)

### Okatxu

- M. Pilar Zeberio Begiristain (Andoain)
- Ramon Iriondo Bergara (Hernani)

\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com)

[www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)

gunea

argia







# ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

[www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)

